



**"Herri erdia dago inplikatuta. 11Lorek oso harrera ona izan du Otxandion"**

11Lore elkarteak beharrezkoak diren pertsona edo familiei laguntzen du urte askoan. Julen Vilalta eta Onintze López de Letona bertako kideak dira. Aurten, elkarteko kideek jaurtiko dute Santa Maña jaiei hasiera emango dien txupinazoa, astelehenean. • 15



**"Hankako indarra berreskuratzea izango da gaxena"**

**Txirindularitza** • Hilabete joan da Mikel Bizkarrak izter-zurraren burua apurtu zuenetik. Errekuperazioa ondo doala dio, baina luzerako izango dela. • 26



**Inazio Aldazabal zornotzarra, Irulegiko indusketetan**

**Zornotza** • Inazio Aldazabalek astebeteko egonaldia egin du Irulegiko Eskua agertu zen aztarnategian, indusketa lan boluntarioak egiten. • 2-3

**Saharako 26 ume Durangaldera etorri dira oporrak igarotzera**

**Durangaldea** • Río de Oro elkarteak 10 ume hartu ditu harre-ran. Izurtzan egingo dute egonaldia. Hamadako Izarrak elkarteak 12 ume hartu ditu eta Olazarren aterpetuko ditu, Zaldibarraren. Eguenean, ongiatorria egin zieten Durangoko udaletxean. Bestalde, Lajwad elkartearen laguntzagaz, Elorrioko familiek 4 ume hartuko dituzte harreran. • 12





**Inazio Aldazabal  
Belakortu**

**Boluntarioa Irulegiko  
aztarnategian**

**ZORNOTZA | 1984**

## “Irulegin egonaldi bat egitea gomendagarria da gure identitatea ezagutzeko aukera ematen duelako”

Inazio Aldazabal Belakortu zornotzarrak sarritan parte hartu du Aranzadi Zientzia Elkartearen indusketetan, boluntario legez. Oraintsu, Irulegiko aztarnategian (Aranguren, Nafarroa Garaia) egon da indusketa lanak egiten

### **BOLUNTARIOTZA • EKAITZ HERRERA**

lazko azaroan ailegatu zen zori-  
neko albiste. Aranzadi Zientzia  
Elkarteak Irulegiko Eskuaren berri  
eman zuen, eta aurkikuntza horre-  
gaz frogatuta utzi zuen erromata-  
rrak Euskal Herrira ailegatu baino  
lehenago ordu hartako baskoiak  
alfabetatuta zeudela eta idazketa  
sistema propio bat zutela. Gainera,  
hizkuntza baskonikoz idatzitako  
lekukotzarik zaharrena topatu zu-  
ten esku hartan, Kristo aurreko  
mende bat lehenago idatzirikoa:  
'sorioneku'. Bada, aurten, aurkikun-  
tza garrantzitsu hori topatu zuten  
Irulegiko aztarnategian (Nafarroa)  
zornotzar bat egon da indusketa  
lanak era boluntarioan egiten. Ina-  
zio Aldazabal Belakortu (Zornotza,

1984) da bera, eta astebeteko ego-  
naldia egin du Irulegin, ekainaren  
27tik uztailearen 2ra.

**Astebeteko egonaldia egin duzu Iru-  
legiko aztarnategiko indusketetan,  
boluntario legez. Zerk bultzatu zaitu  
boluntario lanetan izena ematera?**

Kontua hamaika urte atzeragotik  
dator. 2012an Amaiurko gaztelua  
industeko programetan parte har-  
tu nuen. Han ere boluntario legez  
aritu nintzen eta egonaldi haiek  
zortzi urtez errepikatu nituen. Ge-  
rorra ume bi izan ditut, etena egin  
dut boluntario lan horietan, eta  
aurten zeregin horri berrekin diot.  
Amaiurko gazteluko indusketak ia  
bere osotasunera heldu direla eta,  
beste aztarnategi batera joatea bu-

ruratu zitzaidan. Eta honako hau  
aukeratu nuen, Irulegikoa.

**Irulegi eta Amaiur. Leku bi horiek  
ezaugarri antzekoak dituzte. Na-  
farroan daude biak, eta biak dira  
sinbolismo handiko lekuak euskaldu-  
nentzat. Kasualitatea da leku horiek  
aukeratu izana?**

Izatez arkitektoa naiz, baina beti-  
danik gustatu izan zait arkeologia,  
txikitatik. Amaiurko esperien-  
tzia lagun baten deia hasi zen.  
Amaiurko indusketetara joatekoa  
zela esan zidan, eta beragaz joa-  
tea erabaki nuen. Asko gustatu  
zitzaidan esperientzia. Amaiu-  
rrek sinbolismo handia dauka,  
hango gazteluan gertatu zelako  
Nafarroako Erresumaren azken  
borroketariko bat. Irulegi orain  
urte bi bisitatu nuen, familiagaz,  
brontzeko eskua aurkitu baino  
lehenago. Eta aurkikuntza horri  
eskerrak leku ikoniko bihurtu da  
jada. Hartu-eman handia daukat  
Mattin Aiestaranegaz, Irulegiko  
aztarnategiko zuzendariagaz.  
Orain zazpi-zortzi urte elkar eza-  
gutu genuen Amaiurren. Leire  
Malkorra arkitektoa ere ezagutzen  
dud, Irulegiko Eskua topatu zuena.  
Arkitektoa da bera ere, eta bera  
ere Amaiurren hasi zen. Beraz,  
hartu-eman handia dugu denok.  
Irulegi oso leku interesgarria da.  
Herrixkagaitik, Erdi Aroko gaz-  
telua ondoan daukalako,... eta  
brontzeko eskua agertu zenetik,  
zeresanik ez!

**Arkitektoa zarela esan duzu. Zerk  
bultzatu zaitu Amaiurko gaztelura eta  
Irulegiko herrixkara joatera, hango  
eraikinekiko jakin-min arkitektoni-  
koak ala euskaldun legez sorturiko  
jakin-minak?**

Gauza biek. Bai arkeologiak eta  
baita euskalduna izateak ere.  
Arkitekto batentzat aberasgarria  
da arkeologoei hormen formak  
aztertzen laguntzea. Hormen  
zuzentasuna, lerroakadurak, erai-

**Herrixkako kalea industen  
ibili gara: zeramika  
piezak, animalien  
hezurrak, haginak eta  
iltzeak topatu ditugu**

**Arkitekto batentzat  
aberasgarria da  
arkeologoei hormen  
formak eta eraikitze-  
ko era aztertzen laguntzea**

kitzeko era desberdinak hirigin-  
tzan. Amaiurren eta Irulegin garai  
desberdinetako hormak daude. Iru-  
legin bertan badira Burdin Aroko

garai desberdinetako hormak. Eta  
Leireren moduko arkitektoak han  
izatea oso lagungarria da arkeolo-  
goei ahal den neurrian laguntzeko.  
Normalean, boluntariotza progra-  
ma horietan egoten direnak arkeo-  
logoak, historialariak eta ikasleak  
izaten dira.

**Zein izan da zure betebeharra Irulegiko  
aztarnategian?**

Han geunden beste denekin bate-  
ra, indusketa lanak egitea. Leku  
batzuetan, aitzur txiki batez eta  
pala batez. Beste leku batzue-  
tan, paletatxo batez. Izan ere,  
eremuaren arabera, era finagoan,  
zehatzagoan, industu behar duzu.  
Irulegiko herrixka lurrez estalita  
dago, 50 bat zentimetroko geruza  
batez. Horrenbestez, lur hori  
ateratzeko, palagaz, karretillagaz  
eta aitzurragaz ibiltzen gara atzera  
eta aurrera.

**Irulegiko herrixkan kale bat eta etxe  
bi industu dira orain arte. Zer industu  
duzu zure egonaldian?**

Etxebizitza horiek biak guztiz in-  
dustuta daude gaur egun. Horien  
alboan kalea dago, herrixkako kale  
nagusia izandakoa. Georradarra  
erabilita, nahita zabaldu zuten ere-  
mu hori. Hain zuzen ere, herriaren  
egitura printzipala zelakoa zen  
ikusteko. Aurten, hiru hilabete  
iraungo duen indusketa kanpai-  
nan, beste eremu bat zabaldu gura  
dute. Beste etxebizitza bat, kalean  
baino askoz ere aztarna gehiago  
topatzen delako etxebizitzetan.

### Topatu duzue aztarna berririk?

Kalea industen ibili gara. Eta bertan zeramika zati batzuk, garai hartako animalien hezurak, haigak eta iltzeak topatu ditugu. Ez brontzezko eskuaren tamainako ezer, baina bai garai hartako bizi-moduaren aztarnak, garai hartako materiala. Aurkikuntza horiek ekarpen handia egiten dute ordu hartako bizimodua zelakoa zen ezagutzeko.

### Zelan sentitu zara Irulegin egindako egonaldian?

Oso gustura. Hiru-lau urtean ezin izan dut esperientzia hori sentitu; beste gazte batzuekin bertan egotea eta elkarregaz industea. Oso giro ona egoten da. Adin askotako gazteak gaude, 18 urtetik 45-50 urtera artekoak. Amaiurren 18tik 72 urtera arteko herritarrak egoten dira. Boluntarioak gara denak eta oso kimika ona sortzen da taldean. Txanda bakoitzean 16 bat neska-mutil egoten gara.

### Iratzartzen zaretenetik lokartu arte, zelakoa izaten da egun bat aztarnategian?

Dena antolatzen da boluntarioen artean. Hau da, txanda bakoitza osatzen duten kideak arduratzen dira gosaria, bazkaria eta afaria prestatzeaz. Berdin garbiketak egiteaz. Egonaldia hastean, egutegi bat antolatzen dugu bakoitzaren ardurak zehazteko. Lau boluntarioz osaturiko taldeak eratzten ditugu. Irulegin, adibidez, gosaria prestatu behar dutenak 07:30ean iratzartzen dira, eta 8:00etan gosalten hasten gara. Bazkariagaz, afariagaz eta garbiketa kontuekin berdinean egiten da. Horrek ez du esan gura otorduak prestatzen dituztenak indusketa lana alde batera uzten dituztenik, jakina! Gauzak biak egin behar dira. 09:00etan Irulegiko herrixkara igotzen gara, industera. 9:00etatik 14:00etara industu egiten dugu. Ordu laurdeneko tartetxo bat hartzen dugu hamaiketarako, eta gero 40 bat minutuko tartea izaten dugu, fruta eta ogitartekoak bazkaltzeko. Gero, 15:00etatik 17:30era indusketak egiten jarraitzen dugu. Amaieran, 18:00etan, herrixkatik jaisten gara. Hortik aurrera denbora libre izaten dugu. Arropa zikina erantzi, dutxatu, lagunekin berba egin, zerbait hartu... jende asko inguruko herriak bisitatzera joaten da.

### Izaten duzue tarterik berandura arte egoteko, udalekuetan legez?

Noizbehinka bai, zapaturen batean, dena ez da industea eta! (barrez). Azken finean, hori ere garrantzitsua da talde izaera lantzeko. Gure artean hobeto ezagutzeko balio du horrek.

### Irulegiko aztarnategiari oihartzun handia eman dio bertan topaturiko brontzezko eskuak. Bertara doazenen artean, igartzen da eskuagazko ikusmin hori, atxikimendu berezi hori?

Bai, igartzen da. Amaiurko gazteluan ere igartzen zen hori. Jende asko etortzen zen gaztelua ezagutzera, sinbolo bat delako. Horrez gainera, kontuan hartu behar da Amaiurko herria eta Baztan oso ederrak direla ikusteko. Irulegiko kasuan, herrixka azaldu zenean, bisitariak joaten hasi ziren. Baina eskua agertu zenetik, iruditzen zait askoz ere jende gehiago doala bertara. Gainera, orain, bisita gidatuak kontratatzen aukera dago. Aranzadi Zientzia Elkartaren web orritik eskatu daitezke erreserbak. Beraz, bisita gidatuetara doazenak eta herrixka ezagutzera doazenak, denak batzen dira Irulegin. Egia esan, oso bisita interesgarriak dira. Aukera izanez gero, kontratatzen eta bertara joateko modukoak. Ez da Irulegi edo hango eskua bakarrik esplikatzeko. Aranguren ibarreko beste hainbat kontu azaltzen da.

### Boluntario lanetan ibili zara beste hainbatekin. Egungo gizartearen perspektibaren kokatuta, zelan ikusten duzu lan boluntarioa, altruista?

Nik ezagutu dudan mundu honetan, boluntariotza hori arkeologia-gaz loturaren bat dugunon artean izan da. Boluntarioetariko asko historia ikasleak direla ikusi dut, interes handia duen jendea. Gero, badago beste jende bat arlo honeguz zerikusirik ez daukana, baina ez dira asko. Boluntariotza lana oso inportantea dela iruditzen zait. Indusketarako ez da nahikoa dirurik egoten eta geroago eta boluntario gehiago behar da. Ez bakarrik indusketetan, beste arlo askotan ere bai. Proiektu hauei dagokienez, jendea benetan da boluntarioa. Eta konprometitua. Ez dugu txakur txikirik ikusi. Irabazten duguna bertan bizitako esperientzia da.

### Zuk bizitako esperientzia gainerako herritarrei gomendatuko zenieke?

Dudarik barik. Mundu guztia-ri gomendatuko nioke. Zergaitik? Gure identitatea ezagutzeko aukera bat delako. Nondik eta zergaitik gatozen ezagutzea dakarrelako. Gaur egungo gizartearen ezagutzetik aparte, orain 2.100 urteko gizartearen ezagutzeko aukera ematen duelako. Zelan bizi zirenen, zein eraikinetan, zein zen euren bizitzeko modua, herrixka horiek zelan eta zergaitik sortu zituzten... Brontzezko eskua agertu zeneko herrixka duzu bertan, eta Nafarroako Erresumaren hastapenetako gaztelua ondoan. Garai desberdinak ezagutu ditzaitezue. Azkenaldian euskal identitate hori apur bat galdu egin dugula uste dut, eta iruditzen zait garrantzitsua dela horrelako gauzak ezagutzea eta ikustea, identitate hori osterara ere topatzeko eta bertan islatzeko. Industera joan ez arren, txango bat egitera ere joan daiteke.



Irulegi Burdin eta Brontze Aroko herrixka izan zen. Aranguren ibarrean dago. Ondoan, Erdi Aroko gazteluaren arrastoak ditu. ARANZADI



Inazio Aldazabal zornotzarrak (eskuman) astebeteko egonaldia egin du Irulegiko aztarnategian, indusketa lanetan boluntario.



Euskal Herri osoko eta kanpoko herritarrek parte hartzen dute Aranzadiren boluntariotza programetan. Aldazabal behean dago, ezkerrean.

# Durango Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako adinekoen lehenengo topaketa hartuko du urriaren 1ean

230 gizarte etxetako kideak Landako Gunean batuko dira Adinekoen Nazioarteko Eguna elkarregaz ospatzeko eta aldarrikatzeko. Egitarau kultural bat lantzen dabilta, "hazten jarraitzeko" eta "adinekoenganako aitortza" ikusarazteko



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako adinekoen elkarteetako ordezkariak eta udal agintariak, barikuan egindako agerraldian.

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hile batzuk falta dira, baina Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako adinekoek jadanik gorritz markatu dute urriaren 1a egutegian. Egun horretan, Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu zabalean, eta, data seinalatu hori aprobetxatuta, Autonomia Erkidego osoko adinekoak Durangon batuko dira. Bertan egingo dute hiru lurraldeetako kideen lehenengo topaketa. 230 bat gizarte etxetako herritarrak Landako Gunean batuko dira, Euskofederpen federazioaren atarkepean. Ekitaldi kulturalak izango dituzte ardatz. Oraingoz egitarau osoa zarratu barik dute, baina antolatzaileek iragarri dute Arantza Urretabizkaia eta Toti Martínez de Lezea idazleen berbaldiak izango

dituztela. Abesbatzak eta kantariak entzuteko aukera ere izango dute, eta Durangoko kaleetan zehar bisita gidatua egiteko ideia ere mahai gainean daukate.

Adineko elkarteen ordezkariak zahartzearen erronkak izan dituzte ahotan. Gipuzkoako AGIJUPENSF elkarteak Felix Elkoroiribek zahartze aktibotik harago begiratzera gonbidatu du. "Kontua ez da zahartze aktiboa bultzatzea bakarrik. Hazten, sortzen eta egiten dugun horretan sinesten jarraitu gura dugu", azaldu du. Arabako Las Cuatro Torres elkarteak Luis Carlos Matias, bere partetik, bakardadeari aurre egitera deitu du: "Horixe da daukagun arazorik handienetarikoa". Bestalde, Bizkaiko Nagusiak elkarteak Jose Mari Macias "etorkizunaren zati izatera mugatu barik, etorkizunaren sortzaile" izatera gonbidatu ditu adinekoak.

Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak azpimarratu dute "ohore handia" dela Durango aukeratu izana Euskadiko adinekoen lehenengo topaketa egiteko.

# Muruetorre dorrea eta Madalenako plaza berrizteko lanek zortzi bat hilabeteko iraupena izango dute

Madalenako plaza kanpotik hasiko dira berritzen, auzoan ospatzekoak diren jaiak ez oztopatzeko

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udala asteen hasi da Muruetorre dorretxea eta Madalenako plaza berritzen. Lehenengoaren kasuan, eraikinaren barrualdea egokitu dute, herritarrentzako bilera gunea eta erabilera anitzeko gela atonduta. Lanek 651.800 euroko aurrekontua izango dute eta obrak amaitzeko epea zazpi bat hilabetekoa izango da.

Bestalde, Madalenako plaza berrizteko lanek 442.000 euroko aurrekontua izango dute. Ermitako teilatu hegala konpontzeaz gainera, plaza inguruak berrizteko dituzte. Hain zuzen ere, lanak plazaren kanpoko

aldetik hasiko dituzte, auzoan laster jaiak ospatuko dituztela eta oztoporik ez sorrarazteko.

**651.800 euro ipiniko dituzte dorretxeko lanetarako; Madalenakoetarako, 442.000 euro**

Behin jaiak amaituta, plazako zoruko lanak uztailaren 24an hasiko dituzte. Irisgarritasun lanak egin eta desnibel guztiak maila berean ipini gura dituzte. Lan hauek zortzi hilabeteko iraupena izango dute.



Muruetorre dorretxearen infografia.

## Barrakak tren geltoki zaharraren eremuan ipiniko dituzte; zezen-plaza, TADUn

### DURANGO • E.H.

Barrakak kokaleku berria izango dute Durango geltokian. Udalak jakinarazi duenez, atrakzioak tren geltoki zaharraren eremuan instalatuko dituzte, Euskal Trenbide Sareagaz adostasun batera ailegatu ondoren. Kokapen berriak premisa nagusi biri erantzuten diela esan dute udal iturriek. TADUko aparkalekua ez dela oso zabala iritzi diote udal arduadunek, eta udaleko teknikariak kokapena aldatzea gomendatu dute, barrakak aparkalekuko asfaltoari eragin diezaioketelakoan.

Bestalde, udalak iragarri du zezen plaza ipiniko dutela aurreten. Iaz ez zuten ipini jaietan. TADUko aparkalekuan egongo da.

**anboto** ▶

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko uztailaren 14a  
21. urtea - 944. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
BIZKAIA

PEFC ziurtagria  
Proiektu hau  
kontrolatutako  
enbretako materialak  
erabiltzeko, bizkaia  
da eta Sutea, Kuzkoa  
eta Araba eskualdeko  
foruak  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Mugimendu Feministak jaurtiriko txupinazoagaz hiru asteko jaiak hasiko dituzte zapatuan Zornotzan

Talde Feminista, Martxoak 8 plataforma, Suhaziak neska gazteak eta Akelarre aniztasunaren aldeko plataforma izango dira txupina jaurtiko dutenak

## ZORNOTZA • J.G.

Jaiak ate joka dituzte Zornotzan. Plaza bete jende batuko da bihar, 20:00etan txupinazoak ikusteko. Aurtan, Mugimendu Feministako kideek izango dute txupinazoak jaurtitzeko ohorea. Zornotzako Talde Feminista, Martxoak 8 plataforma, Suhaziak mugimenduko neska gazteak eta Akelarre aniztasunaren aldeko plataforma udaletxeko balkoian izango dira jaiari hasiera emango dien ekitaldian. Pregoilariek joan zen asteko elkarrizketan esan zuten, pregoian ez da faltako 'askatasun' berba. "Beldurrak auzoz aldatu behar duelako, kaleak eta jaiak gureak direlako", esan zuten. Behin txupinazoak botata, aste biko jai egitaraua ipiniko dute martxan. Zorhontzaren kalejira udaletxe paretik irtengo da, bidelagun ezin hobeeekin: Bergarako BET, Bermeoko KIETB, Txantreako eta Zornotzako Udazken Barria, eta Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, Udazken txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Banda eta Triki Piu.

## Musika eskaintza oparoa

Zornotzako jaietako musika eskaintza hiriburu batzuetakoen mailan dagoela esatea ez da larregi esatea. Zapatuan Zetak eta Akerbeltzen erromeria izango

dira Zubiondo plazan, eta En Esenzia orkestra Zelaieta parkean. Domekan, uztaileak 16, Delirium Tremensen txanda izango da. Datorren asteko barikuan, uztaileak 21, La Furia eta Rebeca

Lane taldeek kontzertua emango dute Zubiondo plazan. Uztailearen 23an Kalakan, 24an Puro Relajoren rantxerak, 25ean Kai Nakai, eta 26an Olatz Salvador izango dira. Eta egitaraua borobiltzeko,

uztailearen 27an 90eko hamarkadako jai berezia egingo dute Zornotzan, Obk, Rebeca, Chimo Bayo eta Fernandisco taldeekin. Zubiondo plazan izango dela iragarri dute.



Zornotzako udal plaza goraino bete zen iazko txupinazoan.

## Zornotzako udalbatzak bost liberatu izango ditu: EAJko lau eta EH Bilduko bat

EAJren eta PSE-EEren botoekin, herria kudeatzeko arlo guztiak hiru atal nagusitan banatzea erabaki dute: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak ataletan

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako udalbatzak bere barne funtzionamendua zelan antolatuta erabaki zuen astelehenean. Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak atalen bitartez kudeatuko dituzte zornotzarrei emandako zerbitzuak. Hiru atal handi horien atarkepean batu dituzte Hirigintza, Gizarte Ekintza, Kultura, Kirola, Euskara eta Tokiko Merkataritza sailak. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos abstenitu egin ziren bozketan. "Alde edo kontra egiteko agurdio sendorik ez" dutela eta abstenitu zen koalizioa. Bestalde, antolaketa berriak "toki administrazioaren arintasunean eta eraginkortasunean hobekuntza nabarmenak" ekarriko dituela esan zuen gobernu taldeak.

Liberazioei dagokienez, gobernu taldeko lau kide (EAJko lau) eta oposizioko kide bat (EH Bildu) izango dira liberatuak. Soldatek eta dietek oposizioko kideen kritikak isiotu zituzten. Ander Uriarte

EH Bilduren bozeramailearen iritziz, "gehiegizko lansariak dira". Batzordeei buruz, dietak merketzea eta horregaz batzordeen maiztasuna areagotzea proposatu zuen. Esther Torvisco jeltzaleak azaldu zuen soldaten irizpideak Eudelek markaturikoak direla, eta, horrenbestez, bertan ordezkartuta dauden alderdi guztiek baliatzen dituztenak direla. Alkatearen soldata gordina 77.928 eurokoa da. Gobernu taldeko

liberatuena 66.239 eurokoa eta oposiziokoena 59.615 euro.

Udal arduradunek 230 euro jasoko dituzte osoko bilkura bakoitzagaitik, 150 euro gobernu batzorde bakoitzagaitik, 450 batzorde informatibo bakoitzagaitik eta 150 bozeramaileen batzordeagaitik. Horrez gainera, talde politiko bakoitzak 750 euro jasoko ditu hilean, eta beste 200 euro alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi kopuruagaitik.



Astelehenean Zornotzan egindako udalbatza.

## Garaiko udal ordezkariak ez dute ordainsaririk jasoko

Joan zen legegintzaldian ere erabaki bera hartu zuten

## GARAI • EKAITZ HERRERA

Joan den legegintzaldian legez, Erramun Osa alkateak ez du ez-lako ordainsaririk jasoko alkate eginkizunak betetzeagaitik, eta ez du dietarik kobratuko Garaik kanpoko egitura organoetan (Mankomunitatean, adibidez) parte hartzeagaitik. Udalbatza osatzen duten gainerako zinegotziek ere bide bera hartu dute.

Ez dute ordainsaririk jasoko udalbatzarretan edo batzordeetan parte hartzeagaitik. Horrez gainera, alkateak jakinarazi du atek zabalik izango dituela bizilagunak hartzeko. Eguaztetan (arratsaldean) eta barikuetan (eguerditik aurrera) hartuko ditu herritarrak, egon daitezkeen kexak eta iradokizunak entzuteko.



Garaiko udalbatza.

## Elorriarren iritzia kontuan hartuta, plan orokorra berrikusiko dute

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) 2011n onartu zena eta ordutik indarrean dagoena ordezkatuko du



Elorrioko argazkia.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Uztailaren 6an egindako osoko bilkuran, Elorrioko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko zerbitzua esleitu zuen. Hirigintza plan honen bitartez, 2011tik onartuta dagoena ordezkatuko da. Eta, hori egiteko, udalak 246.620 euro ipiniko ditu.

**Elorrioko Udalak 246.620 euro ipiniko ditu plan orokorra berrikusteko**

Udalaren esanetan, hauxe da berrikuspenaren helburua: egungo gizarte, ekonomia, ingurumen, kultura eta hirigintza koiunturara egokituriko plangintza orokorreko tresna bat ematea udalerriri. "Prozesua luzea izango da eta elorriarrek zeresan handia izango dute. Berrikuspenak asmo handiko partaidetza-prozesu bat barne hartzen du. Herritar guztiei informazioa, gogoeta eta eztabaida partekatzeko aukera emango die", adierazi dute udaletik. Prozesua herri kontsultagaz amaituko da.

## Esteibarlanda irisgarriago, 163.821 euro inbertituta

Elorrioko Udala udaberrian hasi zen Esteibarlanda kalea berritzen eta hobetzen. Dagoeneko amaitu dituzte lanak

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Esteibarlandako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko helburuagaz, Elorrioko Udalak hainbat jarduera hasi zuen udaberrian. Irisgarritasunari dagokionez, osasun zentrorainoko oinezkoen ibilbidea eta etxebizitzaren atarrietako sarbideak hobetu dituzte. Eta hondaturiko zoladurak eta

elementuak ordezkatu egin dituzte. Bestalde, pergola perimetrala kendu egin dute, arriskua saihesteko.

Horrez gainera, ambulanziek eta desgaitasunen bat duten pertsonen aparkatzeko plazak handitu dituzte, eta ibilgailu baimenduentzat sarbide mugatu berri bat ere ipini dute, besteak beste.



Esteibarlandako argazkia.

## Yanire Granero Memiimo markaren sortzaile eta diseinatzailea hil da



ANBOTOK 2019an elkarrizketatu zuen Yanire Granero. LEHIOR ELORRIAGA

**ABADIÑO • E.H./M.Z.**

Yanire Granero Tena diseinatzaile abadiñarra hil da asteon, 35 urte zituela. Diseinatzaile abadiñarrari bularreko minbizia diagnostikatu zioten 2016an, eta berri txar hura jaso eta berehala ekin zion haren

**Proiektu solidarioa izan da, irabazitakoaren zati bat minbizaren aurkako borrokara bideratzen zuen**

kontra borrokatzeari. Esperientzia garrantz hartatik proiektu solidario bati ekin zion Granerok eta Memiimo marka sortu zuen. Marka horren atzerkinpean hainbat izan dira diseinatzaile abadiñarrak egindako lanak: turbanteak, zapiak, laminak zein sakelakoe-tarako kaxak, besteak beste. Bere proiektua berezia eta solidarioa izan da, irabazitakoaren zati bat minbizaren aurkako borrokarako erabili delako.

## Traña-Matienako pilotalekua zabalik egongo da uztailean eta abuztuan

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Joan zen astetik, Traña-Matienako pilotalekua zabalik dago 9:00etatik 22:00etara, herritarrek uztailean eta abuztuan kantxaz gozatzeko aukera izan dezaten. Abadiño Udaletik jakinarazi dutenez, sarrera libre izango da, baina uztailean dagoeneko eginda dauden urteko erreserbak errespetatu egin beharko dira.

**Traña-Matienako pilotalekua zabalik egongo da udan, 09:00etatik 22:00etara**

"Kalitatezko kirol instalazioa dugu eta gura duenak erabiltzea bultzatu gura dugu, udan ere udal kirol baliabide hori ahalik eta gehien erabili ahal izateko. Gainera, gazteek aspaldi egindako eskaria zen eta uda honetan zabalik egongo da", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

## Sendabelarren destilazio tailerra egingo dute Atxondon, uztailearen 27an

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Kultura Mahaiak, udalaren laguntzagaz, sendabelarren destilazio tailer bat antolatu du uztailearen 27rako. Axpeko Biezko baserrian izango da, 17:00etan.

Udaletik jakinarazi dutenez, sendabelarrak tailerlean jasoko dituzte eta alabikean destilatzen irakatsiko dute,

**Plazak mugatuak direnez, aurretik izena eman beharko da tailerlean parte hartzeko**

besteak beste. Biezko baserriko Oihane Lekunberrik emango du tailerra.

Bestalde, plazak mugatuak direnez, tailerlean parte hartu ahal izateko alde aurretik eman beharko da izena, udal liburategian. Hiru euro ordaindu beharko da.

# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hartz-klínika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00  
Larunbata: hizordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.

**keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**prōktós.clinic**

**Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktoklinika.eus](mailto:info@proktoklinika.eus)

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D  
DURANGO**

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental | hortzklínika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •  
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI •  
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Podologia**  
PSE: 214/06



**OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea  
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Saio personalizatuak dira,  
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

**MAÑARIA / IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**  
Artearen Historiako gradua atera zuen Gasteizko fakultatean, eta, ondoren, Espainiako Erdi Aroko artean espezializatu zen Madrilgo Unibertsitatean. Artista baino gehiago ikerlaria da, noizerik noizera pintzelari ere eragiten dion arren. **Gidari lanak egitea asko gustatzen zaiola eta oso gustura dabilela dio. Iraila amaitu arte ibiliko da –abuztuan itxita dago– zeregin horretan, asteleheneetik barikura 17:00etatik 19:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.**

**Zeintzuk dira zure zeregin nagusiak?**  
Datorrenari harrera egitea, harrobiko dinamika azaltzea eta gura badute bisita gidatua egitea. Sare sozialak ere eramaten ditut. Instagram kontua dugu.

**Gustura zabilta gidari lanetan?**

Oso gustura. Gainera, etxetik gertu egoteak eta egunean ordu biko lana izateak beste zeregin batzuk egiteko aukera ere ematen dit: baserriko lana, okindegikoa... Laster doktoretzagaz hasiko naiz eta horrek ere denbora eskatuko dit. Gero, lekua bera ikusgarria da, magikoa. Gainera, hona etorri diren bisitari guztiak oso atseginak izan dira.

**Angurretara doazen bisitarien artean azaltzeak eta 'saltzeak' arte apur bat ere eskatzen du.**

Bai, eta gustatzen zaidan zeregina da. Berezkoa dut. Erroka bat ere bada. Hau da, irudi figuratiboak errazagoak dira ulertzeko, baina artelanak aluminiozko xaflekin egindako poliedroak direnean,

## “Ekainean 212 bisitari izan ditugu; behin Madrilgo galerista batzuk etorri ziren”

Mañariko Angurreta Harrobia arte espazioa bisitatzen duenari ingurua hobeto ulertzen laguntzen dio Iker Garate gidariak



**Iker Garate Berasaluze**

**Angurreta harrobiko gidaria**

**IZURTZA | 1997**

gatzagoa da jendeari artea ulertaraztea: azaltzea artelanak ez duela zertan izan esangura zehatz bat beti, edo arteari buruzko

hausnarketak sortaraztea bisitariari... Motibatzen nauen lana da eta gustura egiten dut.

**Zein da bisitarien profila?**

Denerik dator. Ekainean 212 bisitari izan ditugu. Nahiko kopuru ona dela uste dut. Ikasturtea amaitu denetik, astegunetan familia gehiago

etortzen hasi da. Argazkilari asko izan ditugu, eta behin Madrilgo galerista batzuk ere etorri ziren. Eta Durangora joandako turistak, bide batez hona datozenak: Madrilgoak, Bartzelonakoak... behin Kanadakoak ere bai. Orokorrean, asko gustatzen zaie espazio hau.

**Gidari izatea, bisita gidatuak egitea... Honetan nabilenetik asko gustatzen zaidan lana dela deskubritu dut**

**Aurrera begira, zer asmo duzu?**

Gidaria izatea, bisita gidatuak egitea... asko gustatzen zaidan lana dela deskubritu dut. Durangoko Artaraz antzerki taldean ibilia naiz eta gidari izatea antzerkia egiteko beste modu bat dela uste dut. Gidoi bat ikasi behar duzu, askotariko bisitari motetara egokitu behar zara... Abaniko zabal horrek 'jolas-teko' aukera ematen dizu. Ahal dudanean artean gidari lanetan jarraitzea gustatuko litzaidake. Jakina, ikerketa ere gustatzen zait eta horretan ere jarraitu gura nuke.

## "Ez genuen espero oilasko errea eskaintzeak halako arrakasta izatea"

Otxandioko igerilekuko taberna eraberrituak eskaintza areagotzeko aukera eman dio Irma Mata tabernako arduradunari, eta uste baino harrera hobea izaten ari da

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Udalak hainbat lan egin du aurten igerilekuan. Esate baterako, tabernako espazioa berrantolatu du. Horrek aukera berriak eman dizkio taberna seigarren urtez kudeatzen ari den Irma Matari. Orain arteko eskaintzari beste bat gehitu ahal izan dio: oilasko errea. Aldi berean hogeita oilasko erretzen dituen erretregia ipini du sukaldean, eta pozik dago izan duen harreragaz. "Ez nuen uste halako arraskatarik izango zuenik", esan du. Joan zen domekan, esaterako, hemeretzi oilasko saldu zituen egun batean. Ideia sasoi bateko Gomilaz jatetxetik hartu zuen. Han ere oilasko errea eskaintzen zuten.



Irma Mata, astelehenean, Otxandioko igerilekuan.

## Mallabiko udaleku ibiltarietan 18 gaztek parte hartu dute

Mallabiko, Berrizko eta Durangoko gazteak izan dituzte Bergaran hasi eta gaur Deban amaitu den udalekuan

**MALLABIA • J.D.**

Txatxilipurdi aisialdi taldeak aurten lehenengoz kudeatu ditu Mallabiko udaleku ibiltariak eta gustura daude izan duten harreragaz. Mallabiko, Berrizko eta Durangoko 18 gaztek parte hartu dute, 14tik 17 urtera artekoak. Gipuzkoatik ibili di-

ra: astelehenean Bergaran hasi ziren. Martitzenean Azpeitiko Izarraitz mendiko aterpe batean lo egin zuten, egunean zehar San Agustin kultur gunea eta beste leku batzuk bisitatu ostean. Gaur Deban amaitu dute udalekua. Padel-surfa egin dute bertako hondartzan.



Udaleku ibiltarian parte hartu duten gazteak.



# UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak  
irailaren 15era arte

Informazio gehiago  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

## 2 KATEGORIA, 4 SARI

### DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

### DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK




**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## UZTAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen produktu lotea.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

### Gosaria Herrian:

Amaia Onaindia Txabarri

### Jatordua Uxarten:

Gontzal Sarrigoitia Oregi

### Okm:

batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Gaur hasiko dituzte, Zaldibarren, Goierri auzoko Santa Marineko jaiak, rock jaialdiaren VII. edizioagaz

19:00etan jasoko dute Donien Atxa; hiru musika talde izango dira jaialdian: Sei Urte, Astoturfer eta Ezta Ilen

### ZALDIBAR • A. M.

Jaietako biharamunetik erreku-peratzeko ia astirik barik, zaldibartarrek parrandarako ordua dute berriro; izan ere, gaurtik aurrera, Goierri auzoko Santa Marineko jaiak ospatuko dituzte. 19:00etan jaurtiko dute jaien hasiera iragartzen duen txupina, eta, jarraian, Donien Atxa jasoko

dute. Ondoren, Eingo taldeak euskal kanta abestuko ditu, sardina jana eta bola-jokoa diren bitartean. Barikua borobiltzeko, zazpigarren rock jaialdia egingo dute, eskualdeko hiru taldegaz. Astoturfer durangarrek, Sei Urte berriztarrek eta Ezta Ilen zaldibartarrek joko dute kontzertua. 23:00etan hasiko da.

Zapatuan, goizetik ekingo diote jaiari, bakailao eta paella txapelketekin. "Bermut alaia"-ren ondoren, mus eta briska txapelketak egingo dituzte, eta arratsaldean umeentzako antzerkia egongo da: Pipo Star. Luhartz taldearen erromeriagaz amaituko dute eguna. Domekan auzoko nagusiak omenduko dituzte, 13:00etan, eta iluntzean ohiko argazki proiektzioa egingo dute. Festak martitzenean amaituko dituzte, uztaileak 18, Donien Atxa botata eta berakatz zopa janda.

### Auzoetako jaiak

Herriko jaiak igarota, auzoetako festak ospatzen hasiko dira Zaldibarren; uztailearen 25ean Gazagako jaiak ospatuko dituzte, eta abuztuaren 10ean Urizar eta Sallabente auzoetakoak. Ekainean, Eitzagako jaiak ospatu zituzten.



Ezta Ilenek kontzertua emango du Goierri auzoko jaietan.

## Berrizen San Kristobal Txiki eguna ospatuko dute domekan

Ospakizunetan inguruak zaintzeko deia egin dute, ondo pasatzeko gonbita egiteaz gainera



### BERRIZ • A. M.

Domeka eguerdiko mezagaz batera hasiko dira Berrizko San Kristobal Txikiko jaiak; 12:30ean izango da elizkizuna, eta mezaostean salda eta pintxoak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Iremiñe dantza taldeak saioa egingo du gero, eta bazkalostean haurrentzako jolasak egongo direla esan dute antolatzaileek: uretako jolasak, aurpegi margoketa, altxorren bila eta karaokea. Taberna egun osoan egongo dela zabalik ere esan dute. Festara joateko eta jaietz gozatzeko deialdia egiteaz gainera, antolatzaileek ingurua zaintzeko deia ere egin dute. Horrez gainera, uretako jolasak egongo direnez bainujantzia eramatea gomendatu dute.

Artiboko irudia.



Rufián, Otegi, Junqueras eta Agirre, Ezkurdin egindako ekitaldian.

## Durango, uztailaren 23ko Espainiako hauteskundeetako eszenatoki

EH Bilduk ekitaldia egin zuen astelehenean Durangon, Rufián, Otegi, Junqueras eta Agirregaz. Bestalde, PPK prentsaurrekoa eman zuen martitzenean García eta Iturgaizegaz

### HAUTESKUNDEAK • EKAITZ HERRERA

EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen astelehenean Ezkurdin. Bertan izan ziren Jasone Agirre senaturako Bizkaiko hautagaia, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusia eta Kataluniako ERC alderdiko Oriol Junqueras eta Gabriel Rufián politikariak. Otegiaren berbetan, Espainiako joera politikoaren aurrean "ezin da ekidistantea izan". EH Bildu "subiranotasunaren, ezkerren eta antifaxismoaren" aldeko alderdi modura ipini du. "Ezin da Feijooren PP zuritu, PPK Vox duelako barruan, eta Vox delako estatuko ultraeskuindarren blokearen norabidea zehazten duena", esan zuen Otegi. Era berean, Durango izan zuen aho-

**Otegi: "Durangon, EAJk PPrekin ituna egin du abertzale bati alkatetza kentzeko"**

**García: "Durangon gobernutik kendu ditugu, eta Espainian ere aterako ditugu gobernutik"**

tan: "Hemen, Durangon, EAJk PPrekin ituna egin du abertzale bati alkatetza kentzeko. Gure printzipioa da lehenik herria eta gero alderdia. Lehenik herria eta gero siglak", esan zuen. Jasone Agirre senaturako Bizkaiko hau-

tagaiak adierazi zuen EH Bilduri emandako botoa "ziurtasunaren eta egiaren botoa" dela. "EH Bildugaitik bada, eskuin espainolak ez du ez protagonismorik ez erabakimenik izango", gaineratu zuen.

Biharamunean, PPKo kideek agerraldia egin zuten. Carlos García zinegotzi popularraren iritziz, "presentzia desatsegina" izan zen astelehenekoa. "Durangon, Euskadin eta Espainian argi geratu da EH Bildu eta ERC ez direla Espainiako gobernuan egongo, gaur egun dauden bezala. Herri hau da horren sinbolo. Durangon gobernutik kendu ditugu, eta Espainian ere aterako ditugu gobernutik", esan zuen García.



PPk Miguel Angel Blanco gogoratu zuen martitzeneko agerraldian.

## Etxego gaztelekuaren ingurua urbanizatu dute Iurretan

Iurretako Udalak 137.366 euroko inbertsioa egin du

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Dagoeneko amaitu dute Iurretako Etxego gaztelekuaren ingurua urbanizatzen. Askotariko funtzionalitatea duten altzarien bitartez, mugimendu-erronkak ahalbidetzen dituzten hainbat gune batzen ditu espazio berriak. Orain aukera dago esertzeko, skategaz ibiltzeko, jolaserako espazioak banatzeko... Hormigoi armatuzko harmaila bat ere egin dute; iparraldeko fatxadari

atxikita dago. Aurrean eremu zabal bat du, arte erakustaldiarrako edo kanpoko gazte taldeentzat, udal arduradunek adierazi dutenez.

Maiatzean hasi zen Etxegoren inguruko urbanizazio proiektua. Udalak bideratutako partaidetza prozesuaren barruan jasoriko proposamenak batu dituzte. Lanek 137.366 euroko inbertsioa izan dute. 2018tik IU! Gazte proiektuaren egoitza da Etxego.



Askotarikako funtzionalitatea duten altzariekin hainbat gune sortu dituzte.

## Tortilla txapelketa eta jolasak Arriandiko Santamañetan

San Kristobal jaiek Santa Maña jaiei emango die lekukoa Iurretako Arriandi auzoan; biharko bazkaria antolatu dute

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Usadioari eutsiz, sardinak janda ospatu zuten San Kristobal eguna, astelehenean, Iurretako Arriandi auzoan. Zapatuan, bestalde, herri bazkarian elkartuko dira, 14:30ean. Bazkalurrekoa girotzeko trikitilariak izango dira auzoan; baita bazkalondoan ere.

Sankristobalek Santa Maña jaiei emango die lekukoa. Egun

osoko egitaraua prestatu dute uztailaren 18rako, Santa Maña egunerako. Meza izango da, 11:30ean, eta jarraian, tortillak, gozokiak, kangrejoak eta edaria banatuko dituzte Santa Mañako baselizan. Ondoren, XLIII. Tortilla Txapelketa eta XXXVII. Igel Txapelketa egingo dituzte. LIV. Briska Txapelketa hasiko da 18:00etan, eta, 19:00etan, ume eta helduentzako jolasak.



Asteleheneko San Kristobal eguneko argazkia. IURRETAKO UDALA

## Saharako 26 ume Durangaldera etorri dira oporrak igarotzera

Ongietorria egin diete Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarten bitartekaritzagaz etorri direnei

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Tindufeko kanpalekuan erbestaturiko 26 ume Durangaldea daude astelehenera. Uda eskualdean emango dute, bertako elkarten eta instituzioen babesean. Río de Oro elkarteak 10 ume hartu ditu harreran. Izurtzako aterpetxean egongo dira abuztua amaitu arte. Egondian zehar, 80 boluntario eta Saharako monitore bi izango dituzte bidelagun. Hamadako

Izarrak elkarteak, bere partetik, 12 ume hartuko ditu harreran. Aurten Zaldibarren hartuko dute ostatu. Olazarren, hain zuzen ere, frontoiaren ondoko lokaletan. Garazi Etxebarria arduradunak zehaztu du 50 boluntariotik gora egongo dela monitore eta sukaldari lanetan.

Bestalde, Lajwad elkartearen bitartez lau ume sahararrek Elorriko familietan pasatuko dute uda.



Ongietorriaren ondoren, Durangoko Udalak hamaiketako eman zien.

### Durangaldea asteen

#### Ibilgailuen noranzkoa aldatuko dute Juan Mari Altuna eta Kurutziaga kaleen artean

**DURANGO |** Durangoko Udalak zirkulazio aldaketa bat egingo du Txatxiena, Juan Mari Altuna eta Kurutziaga kaleek bat egiten duten eremuan (Garai jauregiaren eta Napar elkarte gastronomikoaren artean). Trafikoaren noranzkoa aldatuko dute tartetxo horretan.

#### Josune Escota Durangoko alkateordea legebiltzarkidea ere izango da aurrerantzean

**DURANGO |** Josune Escota gaur egun Durangoko alkateorde eta EAJren bozeramaile dena Eusko Legebiltzarrean ere arituko da politikari. Ardura biak betetzeak "esfortzu handia eta lan handia" eskatuko dizkiola esan du Escotak, baina azpimarratu du "ilusio eta gogo handiagaz" beteko dituela bai udaleko lana bai Legebiltzarrekoa.

#### Uztailaren 25ean 'aitite-amamen egun handia' ospatuko dute Zornotzan

**ZORNOTZA |** Zornotzako Udalak eta Hirugarren Adinekoen Elkarteak Aitite-amamen egun handia antolatu dute uztailearen 25erako. 13:00etan ekingo diote jaialdiari, Zelaieta parkean, Udabarri dantza taldearen emanaldiagaz. Gero, bazkaria egingo dute frontoian. Bazkarian 70 urtetik gorakoek parte hartuko dute. 16:00etan dantzaldia izango dute.



#### Dagoeneko zabalik dago Astolako igerilekuko kanpoko taberna

**ABADIÑO |** Dagoeneko zabalik dago Astolako igerilekuko taberna. Irailaren 15era bitartean egongo da zabalik, astelehenera domekara, etenik bako ordutegian, 11:30etik 20:30era.

Udaletik jakinarazi dutenez, instalazioaren irekiera bost egunez atzeratu behar izan dute, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko asmoz.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).



**Smurfit Kappa**  
Central forestal

**+55 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAITZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión



# Otxandioko jaiak 2023

**UZTAILAK**  
15, 17, 18, 19  
21, 22 eta 23



## Otxandioko jaiak 2023

### Uztailak 15, zapatua

**13:00** Txupinazoa. Gaztetxean

**13:05** Poteo girotua

**14:30** Gazte bazkaria

**16:00** Bingoa

**18:00** Olinpiadak. Plazan

**21:00** Kontzertuak: Desgaraian, Arratians eta DJ Rosamari

### Uztailak 17, astelehena

**18:30** Ohiko Salve Regina abestuko da, Oihandi abesbatzagaz batera

**19:00** Soinubilen eskutik, 'Gora Otxandioarrak' abestia

**19:15** Txupinazoa

**19:20** Danborrada

**20:00** Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan. Giza Eskubideen Udal Batzordeak deituta

**20:30** Eusko Labelen haragi pintxoak

**23:00** Erromeria Joselu Anaiak taldeagaz

### Uztailak 18, martitzena

**12:00** Otxandioko bandagaz kalejiira  
**Ondoren**, Otxandioko txistulariak

**12:30** Meza nagusia

**13:15** Umeen pilota partiduak. Plazan

**14:00** Otxandioko dultzaineroak

**18:30** Urduri dantza taldearen eskutik ikuskizuna. Plazan

**20:00** Puro Relajo

**22:30** Erromeria Gau Argi taldearen eskutik

### Uztailak 19, eguaztena

**11:00** Eskalada erronka. Mañondoko boulderrean

**12:00** Txupinazoa 6. mailakoen eskutik

**12:05** Feria jolasak eta puzgarriak

**12:30** Arimen meza

**14:30** Umeen bazkaria. Plazan

**16:00** Magia saioa

**17:00** Txoripan otordua

**17:00** Tute, mus eta briska txapelketak

**18:00** Karaokea. Plazan

### Uztailak 21, barikua

**20:00** II. Plazako pilota txapelketako finala

**22:30** Play-back gaua. Plazan

### Uztailak 22, zapatua

**11:00** Otxandioko bandagaz kalejira  
**Ondoren**, Soka Dantza. Plazan

**12:15** Dultzaineroen kalejira

**12:30** Meza San Martinen

**14:00** San Martinen, paella txapelketa

**19:00** Skapaie elektrotzaranga, kalerik kale

**22:00** Kontzertuak: Gozzue, Brigade Loco, J Martina eta Maixa & Malakias

### Uztailak 23

**07:30** Diana eta kalejira

**08:00** Sokamuturra

**12:00** Meza nagusia

**13:00** 1936ko bonbardaketan hildakoei omenaldia. Andikona plazan

**Ondoren**, Felipe Arrese Beitiaren eskultura berriaren inaugurazioa

**13:45** Limonada plazan

**14:00** Otxandioko eta Araiako banden kontzertua. Plazan

**18:00** Herri kirolak. Urrezko Aizkora Txapelketa

**22:00** Erromeria Beranduegi taldearen eskutik

**00:00** Agur Santa Marina



Ondo pasa  
jaietan!

Otxandiotik munduan zehar  
minerala mugitzen

+34 945 450 075 • [www.ulmaconveyor.com](http://www.ulmaconveyor.com)



## “11Lore erreferentziazko talde bihurtu da pertsona askorentzat: laguntza, informazioa... eskatzeko”

Beharriana duten pertsona eta familiei laguntzen dien 11Lore elkarteak jaurtiko du Otxandioko jaietako txupinazioa



### TXUPINAZOIA • J.D.

Astelehen arratsaldean hasiko dituzte Santamaña jaiak, eta 11Lore elkarteak jaurtiko du txupina. Elkarteak beharriana duten familia eta pertsoneri laguntzen die, hainbat modutan. Onintze López de Letona Ibañez otxandiarra eta Julen Vilalta Renobales oletarra 11Loreko kideak dira eta elkartearen berri eman dute.

### Noiz sortu zen 11Lore elkarteak?

**Onintze López de Letona:** Harrera talde lez hasi zen, orain zortzi-bederatzi urte, Otxandiora bizitzera zetorren edozein pertsonari laguntzeko.

**Julen Vilalta:** Otxandiarren bizi baldintza hobetzea da taldearen

funtzio printzipalena; batez ere, egoera zaugarria bizi dutenena, ahal den neurrian bizi kalitate duin bat izan dezaten. Gaur egun, askotariko ekimenak egiten ditugu. Esaterako, elikagaien bankua. Azkenaldian zortzi-hamar familiari laguntzen diegu eta hamalau bat familiari laguntzera heldu gara. Banaketa hilean behin egiten dugu. Hainbat bide-tatik batzen ditugu elikagaiak: Bizkaiko bankutik, herritarren-gandik, eskolatik jasotzen dugunetik...

**O.L.L.:** Horrez gainera, herritarren bitartez arropa, etxetresnak, oheak, umeak autoetan eramateko eserleku bereziak... jasotzen ditugu eta udalak utzita-

ko lokal batean gordetzen ditugu, beharriana dutenen artean banatzeko.

**Egiten dugun dena egin ahal izateko jende askoren laguntza behar da. Herri erdia dago inplikaturik**

### Zein da laguntzen diezuen horien profila?

**O.L.L.:** Batez ere familiak dira. Bi, hiru edo ume gehiago dituztenak. Horiek dira hartzaile nagusiak.

**J.V.:** Beharriana dutenen argazki orokor bat egitea ez da erraza. Per-

sona batzuen beharriana eza-gutzea konplikatuagoa dela konturatu gara. Esate baterako, bakarrik bizi diren pertsona helduena.

**O.L.L.:** Gure artean sarritan komentatu dugun zerbait da eta profil konkretu bat izaten dugu buruan: pensio oso baxua duten emakume nagusiak. Pertsona horiek zailtasunak izango dituzte hile amaierara heltzeko, baina muga pertsonalak, sozialak, kulturalak eta mota guztietakoak daude eurengana heltzeko. Horregaitik, kostatu egiten zaie laguntza eskatzea, eta, aldi berean, geuri ere bai eurengana heltzea.

**J.V.:** Jendea geroago eta larriago dagoela da joera. Prezioak, orokorrean, igo egin dira; soldatak, ostera, ez, eta jendea diru laguntzen

menpe dagoenez, bada, mugatuta dago.

### Zer beste ekimen egiten duzue?

**J.V.:** Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI) bultzatu dugu. Durangotik datorren irakasle batek klaseak ematen ditu astean lau egunetan.

**O.L.L.:** Gutxienez hamabi ikasle behar ziren taldea osatzeko. Durangoko HHira deitu genuenean, esan ziguten ez genuela gutxiengor taldea sortzea lortuko; biztanle dezente gehiago duen Elorrioren ahalegindu zirela, eta ez zutela lortu. Bada, aurtengoa bigarren ikasturtea izan da eta hurrengoan ere jarraituko dugu. Euskara taldeak ere baditugu; udalaren eta AEKren artean talde bat sortu dugu. Klase hauek guztiak mantendu gura ditugu, garrantzitsuak direlako pertsonen autonomia garatzeko.

**J.V.:** Aniztasun jaialdia ere antolatzen dugu. Aurtengoa irailean izango da.

**O.L.L.:** Egunean zehar sortzen diren kontuetan laguntzeko babes talde lez ere funtzionatzen dugu.

**J.V.:** Diru laguntzez haratago, eguneroko sortu daitezkeen kontuak ere badaude eta euren prozesuak dituzte. Adibidez, beharriana duten familia bat: elikagaiak, mantak... dena delakoa; eta hurrengo astean hitzordua izaten dute udalagaz, gaia aztertzeko. Baina bien bitartean hainbat egun dago eta ez dago ezer. Lehenengo harrera hori, larrialdietako laguntza hori, askotan kubritzen dugu. Deitu egiten digute, mobilizatu egiten gara eta berehala erantzuten diogu arazoari. Beharriana puntualetarako oso ondo funtzionatzen dugu.

**O.L.L.:** Pertsona eta familia askorentzat erreferentziazko taldea garelako uste dut: informazioa eskatzeko, laguntza eskatzeko...

### Baduzue herritarren laguntzarik ekimen horiek guztiak aurrera eramateko?

**J.V.:** Bai, eta atea zabalik dugu batu gura duten denentzat. Talde eragile txiki bat dago, baina egiten dugun dena egin ahal izateko jende askoren laguntza behar da. Herri erdia dago inplikaturik. 11Loreko oso harrera ona izan du herrian. Berez funtzionatzen du.

  
E.S. Otxandio  E.S. Izurtza



## Danborrada, musika kontzertuak eta Gazte Eguna, besteak beste, Otxandioko Jaietan

Jaietan askotariko ekintzak izango dira. Uztailaren 23an, esaterako, Urrezko Aizkora Txapelketa jokatu da

### OTXANDIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 17an, ohiko Salve Regina abestu, txupinazoa jaurti eta urteroko danborradagaz hasiko dituzte ofizialki Otxandioko jaiak. Aurretik, baina, uztailaren 15erako, Gazte Eguna antolatu dute.

Aurten ere, Otxandioko jaien barruan askotariko musika kontzertuez gozatzeko aukera egongo da. Jaietako jaialdirik indartsuena uztailaren 22koa izango da. San Martin egunez, Gozzue herriko taldea igoko da plazako oholtzara; baita Brigade Loco, J Martina eta Maixa & Malakias ere. Kontzertu hauek 22:00etan hasiko dira. Au-

rretik, Skapaie elektrotxaranga girotuko ditu Otxandioko kaleak.

Baina uztailaren 22koak ez dira izango Otxandion egongo diren kontzertu bakarrak. Bihar, esaterako, Gazte Eguna ospatuko dute eta 21:00etan kontzertuak egongo dira Otxandioko Gazte-txean. Desgaraian, Arratians eta DJ Rosamari taldeek joko dute bertan.

Musika eskaintza zabalaz gainera, askotariko ekintzak ere izango dira Otxandioko jaietan. Horiatariko bat Urrezko Aizkolari Txapelketa izango da. Uztailaren 23an, 18:00etan, Hodei

Ezpeleta Euskadiko txapeldunak eta Mikel Larrañaga Urrezko Aizkolari Banakako txapeldunordeak indarrak neurtuko dituzte. Urrezko Aizkolari txapeldunen ligaz gainera, aizkolari emakumeen binakako desafioa ere jokatu da. Vulcano V. ingude jasotze txapelketa eta harrijasotze erakusketa ere egongo dira.

### Kartel irabazlea, herrikoa


Aurtengo jaietako kartel irabazlea Asier Urrutxurtu otxandiarra da. "Normalean kartel guztiak antzerakoak izaten dira. Zerbait ezberdina egin gura nuen. Eta irabaztea lortu dut", esan zuen. Urrutxurtuk lehenengoz parte hartu du.



lazgo jaien hasierako argazkia.

## Felipe Arrese Beitiaren busto berria uztailaren 23an inauguratuko dute Otxandion

Orain urte bi, herriko jaietan, idazle otxandiarraren bustoa lurrean agertu zen, apurtuta. Berriro egin dute



Bustoa eliza ondoan ipiniko dute.

### INAUGURAZIOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 23an, Andikoa plazan, 13:00etan, 1936ko bonbardaketan hildakoei omenaldia egin ostean, Felipe Arrese Beitiaren eskultura berriaren inaugurazioa egingo dute elizaren ondoan.

Arrese Beitia Otxandioko eskal idazlearen bustoa urteetan egon da Santa Marina elizaren ondoan. Baina orain urte bi, herriko jaietako egun batean, bustoa

lurrean agertu zen. Orain, Eibarko enpresa batek bustoa egin, eta uztailaren 23an berriro inauguratuko dute. Udaletik jakinarazi dutenez, bustoa inaugurazioaren egunean bertan ipiniko dute.

Lekuan bertan auresku bat dantzatuko dute eta Otxandioko koruak Arrese Beitiak berak konposaturiko abesti bat kantatuko du. Ekitaldian Arrese Beitiaren senitartekoak ere izango dira.



LOREZAINZA - ZERBITZUAK - INGURUMENA  
Soropil artifiziala hornitzea eta instalatzea  
Tel.: 610 400 414 / 607 412 773



## LOFENG SSHUO S.L

EIT Eraikinen Ikuskapen Teknikoak · Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak · Arkitekturako eta interiorismoko proiektuak eta erreformak · Obra-zuzendaritza

Tel.: 639 613 580 (Lorenzo Cubero)  
620 570 294 (Sofia Sánchez)



Mendiko bizikleta  
elektrikoen mailegutza  
625 702 019



Kerizara Baserria  
Kontaktua: Jaione Ajuria Otxandiano  
Mugikorra: 605 771 499



TABERNA · OTXANDIO  
Pintxoak, bazkariak, afariak eta askoz gehiago  
Tel.: 627 804 223

danoena  
taberna

UDAN EGUNERO  
ogitartekoak  
hanburgesak  
plater konbinatuak  
eta pizzak

Plaza nagusia, 5  
OTXANDIO  
Tel.: 945 450 248





# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**

# Okm:

## *batzen gaituen distantzia*

### **Abantailak**

#### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

#### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

#### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran

#### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

#### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

#### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

#### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

#### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

#### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

#### **LA PERLA**


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

#### **NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### **HONTZA MUSEOA**

- %50eko deskontua sarreretan



**> anboto**  
**kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

#### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

#### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

#### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***



# LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea jostailuei jarraituta.

# ZEIN DA?

Beheko aukeretatik zein  
dagokio irudiaren hutsune zuriari?





## Zetak

MUSIKA ZORNOTZA :: Uztaileak 15

### Zetak-en doinu elektronikoeak jai giroa berotuko dute Zornotzan

Zornotzarrak prest daude jai giroan murgiltzeko. Uztaile amaitu artean, makina bat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute bertakoek zein bisitariak. Asteburu honetan, Pello Reparaz buru duen Zetak taldearen doinu elektronikoeak berotuko dute gaua. Talde nafarrak bihar emango du kontzertua, 22:30ean, Zubiondo plazan. Ondoren, Akerbeltz erromeria taldeak hartuko du lekukoa.

2019an jaio zen Zetak, Pello Reparaz eskutik, Vendetta musika taldea desegin ondoren. Zetak izan zen taldearen lehenengo lana, eta urtebete geroago *Zeinen ederra izango den* diskoa kaleratu zuten. 2022a itzuleraren urtea izan zen. Taldeak *Itzulera* abestia kaleratu zuen, Erramun Martikorenagaz elkarlanean. Erabateko estilo aldaketa izan zen. Gero etorri dira *Zoriontasuna* (2002) eta *Pa amb Oli I Sal* (2023) abestiak.

### Uztailearen 14an

#### ELORRIO musika

Antonio Lizana, 20:00etan, Lariz jauregian.

#### OTXANDIO musika

Urmuga: Mikel Urdangarin, Leire Letu, Bixente Martinez, Carme Canela, Baleen Lobak, Kristina Aranzabe, Leturia, Iñaki Dieguez, Otxandioko txistulariak eta Et Incarnatus, 18:30ean, Presazelai pagadian.

#### ZALDIBAR santamarinak

Jaiak iragartzeko txapligua eta Donien Atxa jasotzea, 19:00etan, Goierri auzoan. Sardina jana, 20:00etan. Eingo taldea, 20:30ean. Bola-jokoa, 22:30ean. VII. Rock Jaialdia: Astoturfer + Ezta Ilen + Sei Urte, 23:00etan.

### Uztailearen 15ean

#### BERRIZ antzerkia

'Agurea, urpekaria eta itsasoa' (Hortzmuga), 17:00etan, eskolako patioan.

#### DURANGO musika

KOBR3 (Cia Zirkozaurre), 22:00etan, Aurora Abasolo parkean.

#### ELORRIO musika

Verde Prato, 20:00etan, Lariz Jauregian.

#### IURRETA santamañak

Herri bazkaria, 14:30ean,

Arriandi auzoan. Trikitilariak aurretik eta ondoren.

#### ZALDIBAR santamarinak

Bakailao eta paella txapelketak, 11:30ean, Goierri auzoan. Bizkaiko Bolo Txapelketa, 12:30ean. Bermut alaia, 13:00ean. Mus eta briska txapelketak, 16:30ean. 'Pipo Star' umeentzako antzerkia, 17:30ean. Ondoren, txokolata. Luhartz taldea, 22:30ean. Bolo txapelketa, 23:00etan.

#### ZALDIBAR mendi martxa

Zaldibarko XLIV. mendi martxa, 07:00etan, Zaldua plazan.

### Uztailearen 16an

#### BERRIZ jaia

Oizko San Kristobal jaia, egun osoz, Oiz mendian. Obieta aita-seeekin erromeria. Zozketa, 18:00etan.

#### BERRIZ sankristobalak

Meza, 12:30ean, San Kristobal Txikiko jaien barruan. Ondoren, salda eta pintxoak. Iremini dantza taldea. Haurrentzako jolasak eta bola-jokoa, arratsaldean.

#### ELORRIO musika

Ruper Ordorika, 19:00etan, Lariz jauregian.

#### ZALDIBAR santamarinak

Goierri auzoko nagusiei omenaldia eta dantzariak, 13:00etan. Bermuta, 13:30ean. Gazteentzako bola-jokoa, 17:00etan. Asto probak, 18:00etan. Argazki proiektzioa, 21:30ean. Jaiak agurtzeko traka, 22:00etan.

### Uztailearen 16ra bitartean

#### ELORRIO zirkua

Gure Zirkua, Ganondo parkean. Sarrerak eskuragarri Gure Zirkua webgunean edo leihatilan.

### Uztailearen 18an

#### IURRETA santamañak

Meza, 11:30ean, Santa Mañako basilikan. Jarraian, tortillak, gozokiak, kangrejoak eta edariak banatuko dituzte. Santa Mañako XLIII. Tortilla Txapelketa eta Santa Mañako XXXVII. Igel Txapelketa. Santa Mañako LIV. Briska Txapelketa, 18:00etan, Amezetako eskolan. Ume eta helduentzako jolasak, 19:00etan, Amezetako inguruetan.

#### ZALDIBAR santamarinak

Meza, 12:00etan, Goierriin.

#### Donien Atxa

botatzea, 18:00etan. Ondoren, berakatz zopa.

#### ZALDIBAR emanaldia

Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa, 18:30ean, liburutegi zaharrean.

### Uztailearen 20an

#### ABADIÑO musika

Ramada Inn, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

#### BERRIZ antzerkia

'Transir' (Rojo Telón), 17:00etan, Olakueta plazan.

#### DURANGO antzerkia

'Agurea, urpekaria eta itsasoa' (Hortzmuga), 19:00etan, Platerueneko terrazan.

#### DURANGO batzarra

Al-Anon alkoholikoen senitarteko eta lagun taldea batuko da, 18:00etatik 20:00etara, Landako kirolegiaren sotoan ( 611 055 805).

#### ELORRIO musika

Garbiñe (June eta Ageda), 21:00etan, Portalekuan.

#### ZORNOTZA ikastaroa

Nagusientzako zientzia tailerra, 19:00etan, Besue elkartearen (Luis Urrengotxa, 8).

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

#### • Misión imposible.

##### Sentencia mortal

barikua 14: 18:00 / 21:00

zapateria 15: 18:00 / 21:00

domeka 16: 17:15 / 19:30

astelehena 17: 17:30 / 19:45

martitena 18: 17:30 / 19:45

eguztina 19: 19:00

#### • Elemental

barikua 14: 18:30 / 21:00

zapateria 15: 17:00 / 19:20 / 21:30

domeka 16: 17:00 / 20:15

astelehena 17: 17:30 / 20:30

martitena 18: 17:30 / 20:30

eguztina 19: 19:00

#### • Indiana Jones y el dial del destino

barikua 14: 21:00

zapateria 15: 21:30

domeka 16: 19:30

astelehena 17: 20:15

martitena 18: 20:15

eguztina 19: 19:00

#### • Vacaciones de verano

barikua 14: 18:30

zapateria 15: 17:00 / 19:20

domeka 16: 17:00

astelehena 17: 18:00

martitena 18: 18:00

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

## Zornotzako jaiak 2023

### UZTAILAK 15

**20:00** Pregoia, txupinazoa eta Zorhontzaren kalejira, Bergarako BET, Bermeoko KIETB, Txantreako eta Amorebieta-Etxanoko Udazken Barria, eta Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, Udazken txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Bandagaz eta Triki Piugaz. Herriko plazan.

**21:30** "Rockalean" Kaleko Musika. Euskal Herria plazan eta Harrison Hotelean

**22:30** Kontzertuak: Zetak eta Akerbeltz erromeria. Zubiondo plazan.

**22:30** En esenzia orkestra. Zelaiaeta parkean.

### UZTAILAK 16

**Goizean.** Karmen eguneko jaiak. Meza, bertsolariak, Udabarri dantza taldea eta Euskal erromeria Triki Piu taldeagaz. Ondoren, Urrezko Aizkolari Txapelidunen liga, Hodei Ezpeleta eta Julen Alberdi "Txikia IV.a"; eta Udane Ostolaza eta Imanol Royo "Lartain" harrijasotzaileak. Larrean.

**10:00** Kart erakustaldia, Lanzero Classicen eskutik. Gure Kirolak aparkalekua.

**10:00** Amorebieta-Etxanoko XII. Jai lasterketa, Zornotzako korrikalarien elkartearen eskutik. Zubiondo parkean.

**11:00** Udazken taldearen kalejira. Herriko zehar.

**12:00** Arku-tiroa, Ostadar elkartearen eskutik. Larrea goiko eskolako patioan.

**18:00** Pilota partidu profesionalak. Amorebieta IV frontoian. Lagun Onak pilota eskolak antolatuta. - Agirre-Morgaetxerria / Alberdi II-Iztueta - Jaka-Albisu / Urrutikoetxea-Mariezurrena II

**18:30** Gazteen arteko ginkana. Larrako beheko eskolan. Zornotzako gazteek antolatuta.

**20:00** Kaleko musika Kittu taldearen eskutik. San Juan Kalean, Andra Mari plazan eta Luis Urrengoetxea kalean.

**22:30** Kontzertua: Delirium Tremens. Zelaiaeta parkean.

**23:00** Kontzertua: Formula V. Zubiondo plazan.

### UZTAILAK 17

**11:00** Zorhontzaren koreografia tailerra. Zelaiaeta zentroan.

**16:00** "Zornotzagol" jaietako futbol 7 txapelketa mistoa, SD Amorebietak antolatuta. Larreako futbol zelaian.

**17:00** Karmenetako XV. esku pilota federatuko txapelketen finalak, Lagun Onak pilota eskolak antolatuta. Amorebieta IV frontoian.

**22:00** Kale antzerkia: 'Psike', Markeliñe konpainiaren eskutik. Herriko plazan (euria bada, Gure Kirolak frontoian).

### UZTAILAK 18

**16:00** "Zornotzagol" jaietako futbol 7 txapelketa mistoa, SD Amorebietak antolatuta. Larreako futbol zelaian.

### UZTAILAK 19

**16:00** "Zornotzagol" jaietako futbol 7 txapelketa mistoa, SD Amorebietak antolatuta. Larreako futbol zelaian.

**17:30** Akrobazien erakustaldia eta tailerra Sergi Sarmiento Serflipsek gidatuta. Herriko plazan.

### UZTAILAK 20

**17:00** "Pilota plazan" Umeentzako esku pilota jolas parkea. Herriko plazan.

**17:30** XIV. Herriko Pala Txapelketako finalak (emakumeak eta gizonak). Amorebieta IV frontoian.

### UZTAILAK 21

**13:00** Gazteen kalejira, Zornotzako gazteek antolatuta. Herriko zehar.

**15:00** Gazteen arteko bazkaria. Ondoren, bingo musikatua. Zelaiaeta parkean (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

**18:00** Kaleko musika: Distopia elektrotzaranga. Luis Urrengoetxeatik hasita.

**21:30** Txistularien XXIII. kontzertua, Udazken txistu taldeak antolatuta. Artista gonbidatua: Eñaut Elorrieta. Zelaiaeta parkean.

**22:30** Kontzertuak: La Furia eta Rebeca Lane. Zubiondo plazan.

### UZTAILAK 22

**10:00** 3x3ko basketak, Zornotza Saskibaloi taldeak antolatuta. Zubiondo parkean.

**10:30** Marmitako lehiaketa, Zornotzako gazteek antolatuta. Zubiondo parkean.

**11:00.** Umeentzako bolo txapelketa, Zornotza bolo klubak antolatuta. Gure Kirolak bolatokian.

**17:30** Ikuskizuna: Xaibor. Zubiondo plazan.

**17:30** Kaleko musika: Mariachi Imperial. Zelaiaeta parkean eta Luis Urrengoetxean.

**18:00** Karaoke ibiltaria. Andra Mari plazan, Gernika plazan eta San Juan Kalean

**20:00** Karaoke ibiltaria. Luis Urrengoetxean.

**21:00** Karmenetako XI. Bolo txapelketa, Zornotza bolo klubak antolatuta. Gure Kirolak bolatokian.

**22:30** Kontzertua: Benidorm orkestra. Zelaiaeta parkean.

**23:00** DJ jaiak: Show party DJs. Zubiondo plazan.

### UZTAILAK 23

**10:00** XLI. Xake txapelketa eta aldi bereko 50 xake partida, Zornotza Xake taldeak antolatuta. Herriko plazan.

**11:00** Ontzi-modelismoaren erakustaldia, Bilbo Model Club-en eskutik. Jauregibarrian.

**11:00** Euskal Herriko artzain txakurren txapelketa, Atxate elkartek antolatuta. Jauregibarriako parkean.

**13:00** Musika: Gaztedi fanfarrea. Zezilia Gallartzagoiatik Sabino Aranaraino.

**16:00** Gazteen arteko piragua jaitsiera, Zornotzako gazteek antolatuta. Ibaizabal errekan.

**18:00** Bizikleta eguna, Urgozo iturria txirrindulari elkartek antolatuta. Zubiondo parketik Gure Kirolakeraino.

**21:00** Bertso saioa: Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina, gai-jartzaile lanetan Zornotzako Eta Abar bertso eskola. Zelaiaeta parkean.

**22:30** Kontzertua: Kalakan. Zubiondo plazan.

### UZTAILAK 24

**11:00** Zorhontzaren koreografia tailerra. Zelaiaeta zentroan.

**11:00-14:00/17:00-19:00** Umeentzako egurrezko jolasak. Herriko plazan.

**17:00** Gazteen arteko Herri Kirolak, Zornotzako gazteek antolatuta. Larrako beheko eskolan.

**19:00** Kale Antzerkia: "Zirkus, Behi zirku bat bazen..." Malas Compañías konpainiaren eskutik. Herriko plazan (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

**22:00** Danborrada. Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza.

**23:00** Kontzertuak: ETS eta Zirkunik Bez erromeria. Zubiondo plazan.

**00:00** Kontzertua: Puro Relajo. Zelaiaeta parkean.

### UZTAILAK 25

**Egun guztian Aitite-amamen jaiak: aureskua, erromeria, bazkaria...** Udabarri dantza taldeak, Udazken txistulari taldeak eta Triki Piu trikitilariak alaituta. Izena emateko: Nafarroa zentroan.

**Goizean Baserritarren azoka**, Enbak antolatuta. Zezilia Gallartzagoiatik.

**11:00-14:00/17:00-19:00** Umeentzako egurrezko jolasak. Gernika plazan.

**12:00-14:00** Umeentzako ekintza: Play system (4 urtetik aurrerakoentzat). Euskal Herria plazan.

**12:00** Musika kalean: Triki Piu. Gernika Plazan, Andra Mari Plazan eta Zezili G

**16:00** Amorebieta-Etxanoko V. Duetloi Txikia, Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldeak antolatuta. Zelaiaeta parkean.

**17:00-19:00** Dron tailerra (8 urtetik aurrera). Euskal Herria plazan.

**20:00** Kale Antzerkia gaztelaniaz: "Dale Ramon", Trapu Zaharra konpainiaren eskutik. Herriko plazan (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

**22:00** Emanaldia: Zornotzako Musika Banda - Zornotzako ahotsak: Beñat Egiarte, Jaurne Gaminde, Eider Etxeandia, Patxi Gonzalez eta Eneko Larreuzea. Zelaiaeta parkean.

**23:30** Soinu-inpaktu txikiko ikuskizun piromusikala, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik. Jauregibarrian.

**00:00** Kontzertua: Kai Nakai. Zubiondo plazan.

### UZTAILAK 26

**11:30-14:00** Txitatoki Zirkus umeentzako zirku azoka ikuskizuna. Zelaiaeta parkean.

**18:00** Umeen danborrada. Ibilbidea: Gudari, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Konbenio; Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Zelaiaeta.

**19:30** Gazteen arteko Play back lehiaketa, Zornotzako gazteek antolatuta. Zelaiaeta parkean.

**22:30** Kontzertua: Olatz Salvador. Zubiondo plazan

### UZTAILAK 27 - MOZORRO EGUNA: HONDARTZA ZORNOTZAN

**13:00** Gazteen pintxo-pote animatua, Zornotzako gazteek antolatuta. Herriko zehar.

**16:30** Azken proba, Zornotzako gazteek antolatuta. Ganeko igerilekuan (euria bada, Gure Kirolak frontoian).

**17:30** Capoeira eta batukada tailerrak. Gure kirolak frontoian.

**19:00** Zornotza11Kolare eta Zorhontzaren agurra. Aniztasunaren kalejira. Gure Kirolak - Jauregizaha r- San Miguel kalea - Herriko plaza.

**19:30** Partehartzaileen erakustaldia: Flash mob-a Zorhontzaren koreografiagaz. Talde gonbidatua: Vibr Com Aço (Brasil). Herriko plazan.

**20:30** Kaleko musika. Burrumba elektrotzaranga. Luis Urrengoetxean.

**22:00** Erromeria: Trikizio. Zelaiaeta parkean.

**22:30** Kontzertua: 1990eko hamarkadako jaiak, Obk, Rebeca, Chimo Bayo, Fernandisco. Zubiondo plazan.

## 'Kobre' ikuskizunak zirku bilakatuko du Durangoko Aurora Abasolo parkea

Malabare teknikak, objektuen manipulazioa eta object bola erabiliko dituzte, besteak beste; zapatuan izango da emanaldia, uztailak 22, 22:00etan



Zirkoaurerren 'Kobre' antzezlanaren irudia. YESSICA CORPAS

ZIRKOA • A. M.

Durangoko Aurora Abasolo parkea kaleko zirku bilakatuko da zapatuan; Bilboko Zirkoaurre konpainiako kideek *Kobre* ikuskizuna egingo dute bertan. Konpainiak orain hiru urte sortu zuen zirku garaikideko ikuskizun hau. Hiru artista igoko dira taula gainera: Gorca Pereira, Pablo Cáceres eta Imanol Suso; malabareak, cyr gupila, bertikalak, objektuen manipulazioa eta eskujoko teknikak erabiltzen dituzte, musikaren laguntzagaz. Zirkoaurrek zirku eskola ere badu, udara begira batez ere, eta bertan zirku teknikak lantzen di-

tuzte; zirkurako zaletasuna ere garatzen dute, batez ere gazte bizkaitarren artean. 22:00etan izango da emanaldia.

### Azken txanpa

Durangoko Uda Giro zikloak irailera arte iraungo du. Hurrengo emanaldia uztailaren 20an izango da: *Agurea, urpekaria eta itsasoa*. Iñaki Aguinaga, Alex Antúñez eta Aroa Blanco durangarra dira antzezlan honetako protagonistak, eta ikaskuntzari eta tolerantziari buruzko abentura bat aurkeztuko dute. Uztailaren 26an, Ray Fernández trobadore kubatarrak kontzertua emango du. Emanaldi bi hauek

Plateruena kultur aterpeko terrazan izango dira. Uztaileko azken emanaldia beste zirku ikuskizun bat izango da; D'es Tro konpainiak *Pol* lana aurkeztuko du, uztailaren 29an. Abuztuaren ikuskizun bi egongo dira; bata antzerkia izango da, eta bestea musika; abuztuaren 5ean, Kamikaz kolektiboak *Troia* taularatuko du; eta abuztuaren 31n Jaime Alvallos Correcherrek blues saioa egingo du. Markeliñe antzerki konpainiak emango dio amaiera Uda Girori, *Carbon Club* ikuskizunagaz; orain 18 urte estreinatu zuten, baina orain agur bira bat egitea erabaki du taldeak.

## Urrutikoetxea eta do Nascimento irabazle Enrike Renteria pintura lehiaketan

Zornotzako pintura lehiaketaren XXV. edizioa izan da aurtengoa; antolatzaileak pozik daude harreragaz

MARGOLARITZA • A. M.

Joan zen asteburuan Enrike Renteria pintura lehiaketa egin zuten Zornotzan. Lehiaketaren 25. edizioa izan da aurtengoa. Aurten ere modalitate bi egon dira, Zintzilik eta Zuzenekoa deritzona, hau da, kalean pintatzen dutenena. Lehenengoan Itxaso Urrutikoetxea bilbotarrak irabazi zuen, eta bigarrenean Martzel do Nascimento zornotzarrak. Ikusleen saria Carmen Mariz zornotzarrak jaso zuen. Zornoza Arte eta Kultur elkarteak antolatu du ekimena beste urte batez, eta orain ere Zornotzako Udalaren laguntza izan dute. Modalitate

bietan Natalia Arbeloa bilbotarrak lortu du bigarren saria. Antolatzaileen esanetan, kaleko lehiaketan hogei lagunek parte hartu zuten eta Euskal Herritik kanpoko parte hartzaileak ere egon ziren. Sarituriko lanak Zelaieta Zentroan daude ikusgai. Zintzilikan aurkezturiko lanak ere ikusgai egongo dira, aurreko edizioetako beste 176 lanekin batera, uztailaren 28ra arte.

Horiez gainera, epaimahaik Astilleroko (Kantabria, Espainia) Antonio Jiménez Campillo lau urteko mutikoari accesit bat ematea erabaki zuen, "etorkizun handiko margolaria" izateagaitik.



Enrike Renteria lehiaketako aurtengo parte hartzaile batzuk.



Ramada Inn.

## 70eko hamarkadako rocka jorratzen duen Ramada Inn-en kontzertua Amaraunen

Juan Vall musikariaren azken proiektua da Ramada Inn; kontzertua uztailaren 20an izango da, 19:30ean

MUSIKA • A. M.

Abadiñoako Amaraun Arte Fabrikak ez du atsedetik hartuko uztailean. Atzo The Iingles talde hondarribiarrak kontzertua eman zuten Piskofest zikloaren barruan, eta datorren egunean, hilak 20, Ramada Inn taldeak egingo du emanaldia. Ramada Inn Juan Valls musikariaren proiektu berria da eta 70eko hamarkadako rock doinuak jorratzen ditu. The Who, Neil Young & The Crazy Horse eta Kurt

Vile & The Violators taldeen eragina nabarmentzen da, besteak beste. Vallsek bakarlarri legez zein beste lagun musikariekin egin du bidea urteotan, eta orain ere horrela izango da: Iñigo Ugarte gitarrista (aurretik Iker Martínez eta Zaldi Herrenak taldeetan aritua), Ander Etxaniz baxu-jotzailea (Lenao eta Zingira taldeetan aritutakoa) eta Mikel Marco bateria-jotzailea (Herstura taldean aritua) ditu lagun oraingoan. 2021eko uztailean

*Pill for Horses* diskoa grabatu zuten Andoingo Garate estudioetan. Emanaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrera bost euroan erosi ahal izango da.

### Jaia, denboraldia ixteko

Merezitako atsedena hartu arte, beste hiru hitzordu egongo dira Abadiñoako kulturgunean: uztailaren 27an Fufu irundarrek kontzertua joko dute; abuztuaren 2an, Baby Shakes estatubatuarrek izango dira bertan; eta denboraldia ixteko, Amaraun jaia egingo dute abuztuaren 5ean.



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Talde berri bat sortu dute Durangaldean, Gorrotoa Gorroto. Taldekideak aurretik musika munduan aritutakoak dira. 'Jano' diskoa kaleratu dute oraintsu, eta euren berbetan hamar "abestizarrek" osatzen dute lana; punk doinuei beste doinu batzuk ere gehitu dizkiete. Biniloa eta CDa kaleratu dituzte eta Bandcampen ere entzungai dute.

Zer da Jano?

Jano jainko erromatar bat da, atearen jainkoa, hasieraren eta amaieraren jainkoa. Gure kasuan, ez dugu horregaitik aukeratu; *Utopia* telesailagaitik aukeratu dugu, izan ere, bertan oso garrantzitsua da. Gizakia- ren gainbehera islatzen du, eta hortik piztu zitzaigun interesa. Telesail hau ikustera gonbidatzen zaituztegu.

Noiz eta zelan sortu zen Gorrotoa Gorroto? Ez duzue punk taldeek izaten duten formakuntza.

Taldearen sorrera konfinamenduaren testuinguruan kokatzen dugu. 2018ko amaieran eta 2019ko hasieran 'Zua' (baxua), 'Lepotxo' (bateria) eta 'Motxilo' (gitarra) Moscow Death Brigaderen bertsioa egiteko asmoagaz batzen hasi ginen. Konfinamendua heldu zen, eta gero, 'Motxilo' bateria jotzen hasi zen, eta 'Lepotxo' gitarra; hirurek bost egunean behin entseatzeko zuten. 'Buru' gero hasi zen entseuetara etortzen, baxua jotzen ikasteko asmoagaz; denbora batera, 'Unzu' sartu zen taldean, ahots nagusi lez, eta gero Beñat saxoagaz;

# "Punk ikutuak ditugu, baina, egia esateko, ez dakigu zein estilo konkretu dugun"

Durangaldeko sei lagunek Gorrotoa Gorroto taldea sortu dute; debuteko diskoa kaleratu dute oraintsu, 'Jano' izenagaz



abesti batean jotzea zen hasierako asmoa, baina taldean geratu da. Beraz, baxu bi eta saxoa ditugu. Punk ikutuak ditugu, baina, egia esateko, ez dakigu zein estilo dugun; hainbat musika doinu

nahasten dugu, guztiz inprobisatua guztia.

**Orain artean kontzertu batzuk eman dituzue. Gustura? Gurago duzue estudioan aritu, ala zuzenean?**

Hamar bat kontzertu eman di-

tugu; egoeraren arabera, oso desberdinak izan dira guztiak. Adibidez, horietariko bat mendian eman genuen, lagun baten omenaldia zelako; imajinatu, 4x4 ibilgailuekin mendian gora,

anplifikadore eta instrumentuak igotzen; aldapan kontzertua ematea ere esperientzia zoragarria izan zen. Gertatu zaigu jendez gainezka ematea kontzertuak, eta baita ia inor ez etortzea ere. Hori bai, publikoak guk besteko ondo pasatu du, eta, beraz, oro-

**Imajinatu, 4x4 ibilgailuekin mendian gora, amplifikadore eta instrumentuak igotzen. Aldapan kontzertua ematea ere esperientzia zoragarria izan zen**

korrean ondo pasatu dugu; bai entseuetan, bai kontzertuetan, eta baita grabazioan ere. Esperientzia polita izan da grabazioa; Almansan grabatu genuen, lagun bategaz.

**Hemendik aurrera, baduzue beste kontzerturik emateko asmorik?**

Orain arte diskoan zentratu gara, baina udatik aurrera kontzertu gehiago emateko asmoa dugu, bai. Prest eta gogotsu gaude. Gure kontaktua Bandcamp orrian duzue. Animatu idaztera!

## Gai librean

### Proiektzio imajinarioak

Bidaia bat hastear nagoen aldiro sentazio desberdinak izaten ditut. Alde batetik bidaia prestatzearen ilusioa datorkit, konpainiaz eta lekuez gozatuko dudaren ziurtasuna. Bestetik, alperra ere bai, zertarako ukatu. Etxean baino hobeto ez naiz egoten (nahiz eta etxe-koek kanpoan denbora gehiago egiten dudala esan) eta sarri galdetzen diot neure buruari "zertan zoaz hara?". Bidaiaren proiektzioan zer imajinatu ere jakin ezinda ibiltzen naiz. Eta uste dut datozen bi (edo hainbat) asteetan antzeko zer edo zer sentituko dudala.

Azken egun eta asteetan gertatutakoek biharkoari zelaz begiratu jakin ezinda utzi naute. Alde batetik, azken Gailibrean aipatutako izurria dago: bueltan da hauteskunderia, kasu honetan globalizazioak eragindakoa. Lagun



Igor Galarza Intxausti  
Kazetaria

### Aste garrantzitsuak datoz gure hizkuntzarentzat eta lurraldearentzat datozen 25 urteetara begira

artean hainbat ideia jarri ditugu mahai gainean egunotan, bozkatu ala ez bozkatu, zer gertatuko den aurreikusitako guran, nik emaitzen porra bat ere egin dut webgune batean... Argi eduki behar dugu gauza bat: globalizazioan sinisten badugu, eta beste estatuetan gertatzen denak Euskal Herrian eragiten duela uste badugu, ez gara zintzoak izango espainiar zein frantziar estatuko hauteskunderiei bizkarra emanda bizi baldin bagara.

Beste aldetik, aste honetan jakin dugun albiste triste bat dago. Igela argitaletxeak jarduera etengo du. Horrelako albisteekin ohartzen gara *Handia*, *Loreak*, *Errementari* zein *Irati* oasi batzuk direla.

Ez dira gure imajinazioaren proiektzio, baina bai proiektatu gura dugunaren imajinazio bat. Horrek guztiak euskarazko kulturaren iodopovidona (betadine, alegia) dira, baina zauriak gorputz osoa zeharkatzen du, eta ezin digute arindu mina. Ez ligukete arindu beharko. Behar ditugu delako filmak, baina are gehiago behar ditugu euskarazko bikoizketak, eta noski, Igelak legez nazioarteko liburu esanguratsuak euskaratuko dituen argitaletxeak.

Horrez gainera, ezin dezakegu ahaztu joan zen astean Espainiako Konstituzio Auzitegiak euskararen aurka egindako ebazpena. Euskararen egoera puntu honetaraino Espainian egon daitekeen gobernurik progresistenagaz heldu bada, ez dut imajinatu gura zer etor litekeen faxismoagaz. Aste garrantzitsuak datoz gure hizkuntzarentzat eta lurraldearentzat datozen 25 urteetara begira.

# “Datorren denboraldiari begira nago; ondo eta presarik barik errekuperatu gura dut”

Hilabete joan da Mikel Bizkarra jausi eta izterrezurraren burua apurto zuenetik. Errekuperazioa ondo doala dio, baina luzerako doala



**Mikel Bizkarra**  
Etxegibel

Euskaltel-Euskadiko  
txirrindularia

MAÑARIA | 1989

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Apurka eskuin hankako mugikortasuna hobetzen ari zaio, baina ez da hori gehien kezkatzen duena, horren osteko prozesua baino: hankak aurretik zuen indarra berreskuratzea.

**Ekainaren 16an egin zizuten eba-kuntza. Errekuperazioa bide onetik doa?**

Bai. Lesioa handia izan da eta errekuperazioa luzea izango da, baina ondo doa. Aurreko asteko astelehenean grapak kendu zizkidaten, erradiografia bat egin eta dena ondo dagoela esan zidaten. Ordutik errehabilitazioan nabil. Aurretik ere ariketa batzuk egiten nituen etxean, baina benetako errehabilitazioa oraintsu hasi dut. Bizikleta estatikoan ere ibiltzen naiz apur bat. Ezin diet pedalei ondo eragin, baina apurka mugikortasuna hobetzen laguntzen dit.

**Lesio guztiak dira txarrak, baina izterrezurraren burua apurtzea bereziki lesio konplikatu da?**

Nahiko lesio konplikatu da, bai; egoera lasai hartzea eta gauzak ondo egitea, ez dago besterik. Hanka mugikortasuna hartzen joango da, seguru, eta gero indarra hartzen joan beharko naiz. Horrelako lesioetan hankak indar asko galtzen du eta hori berreskuratzea izango da denborarik gehien eramango didana.

**Noiz uste duzu egon zaitezkeela erreperidera bueltatzeko moduan? Baduzu aurreikuspenik?**

Egia esanda, datorren urtera begira nago. Ondo eta presarik

barik errekuperatu gura dut, hanka guztiz osatzeko. Aurten denboraldi amaierako lasterketa-aren bat korritzeko aukera badut, bada, hobeto, baina ez dut horregaz neure burua presionatuko. Presa izatea ez da sekula ona, eta are gutxiago horrelako lesio baten aurrean. Datorren urtean denboraldiaurrea ganoraz eta inongo arazorik barik egitea gura nuke eta hori posible izango dela uste dut.

**Zelan gogoratzen duzu erorikoa?**

Bakarrik nindoala jausi nintzen, herri batean eskumarako bihur-gune bat hartzen nabilela. Ez nuen izan arinegi nindoan sentsazioa, baina, antza bai, azkarregi sartu nintzen eta konturatu orduko lurrean nengoan. Kolpea izterrezurrak hartu zuen, bete-betean. Ez nuen inongo urratu-rik egin. Kolpe sikua izan zen. Hezurragaz behea jo eta hantxe geratu nintzen. Horixe izan zen arazo nagusia. Askotan, jaus-terakoan lurrean laban egiten baduzu, urradura asko izaten dira, baina kolpea bera arinagoa da. Baina kasu honetan ez, zorte txarra izan nuen eta kolpe sikua izan zen.

**Tourreko Euskal Herriko etapak etxetik ala bertatik bertara jarraitu ahal izan dituzu?**

Etxetik jarraitu behar izan dut. Euskal Herriko etapak ebakuntza egin eta hamabost bat egunera izan ziren, eta orduan oraindino asko nekatzen nintzen batetik bestera ibiltzeko. Etxean lasai-lasai eta gustura jarraitu dut lasterketa.

**Eta zer diozu Pello Bilbaori buruz?**

Lasterketa itzela egin eta maila handia zuela erakutsi zuen beste behin. Poz handia hartu nuen. Naturgas Energia taldean batera ibili ginen profesioaletara pasatu aurretik. Elkarrekin urtebete egin eta batera igaro ginen Orbea taldera.

## Lezamara bueltan, Amorebietak Mirandesen kontra jokatu du lehenengo lagunartekoa

Biharkoaren ondoren, Haritz Mujikak zuzenduriko taldeak Osasuna Promesas, Burgos, Eibar eta Real Racing Club taldeen kontrako lagunartekoak jokatu ditu abuztuaren 5era bitartean

**FUTBOLA • J.D.**

Amaitu dira oporrak. Joan zen zapatutik lanean dira Amorebieta futbol klubeko jokalaria, eta datozen asteetan bost lagunarteko jokatu dituzte. Lehenengo biak Lezaman dira, urdinek hantxe jokatu dituztelako aurten etxeko partiduak. Lehenengoa Mirandesen kontra, zapatu honetan, 12:00etan; bigarrena Osasuna Promesas taldearen aurka,

hilaren 19an. Hurrengoan, uztailak 22, Medina de Pomarrera joango dira Burgos taldeagaz indarrak neurtzeko. Uztaileko bira Eibarren kontra itxiko dute, Lezaman, eta abuztuaren 5erako ere beste neurketa bat hitzartuta dute Real Racing Club taldearen kontra, Laredon. Hortik aurrera, amaitu dira txantxak, Bigarren Mailako Liga hasiko da eta. Abuztuaren 11ko lehenengo

jardunaldian, Levante hartuko du etxean, iaz mailaz igotzekotan egon zen taldea.

Amorebietak hainbat fitxaketa egin du taldea indartzeko: Daniel lasure ezker hegalekoa, Erik Moran erdilaria, Luis Quintero hegalekoa, eta Felix Galarreta eta Manu Hernando defentsak. Oraindino taldea ez dago itxita eta fitxaketa gehiago egongo dela azaldu dute klubetik.



Amorebieta taldea.

# Azkorbebeitia Euskal Herriko Kopako zirkuituko irabazle ultratrail distantzian

G2H proba irabazita jantzi du txapela; lasterketa berean bigarren sailkatu da Larraitz Aragon



Larraitz Aragon eta Oihana Azkorbebeitia, G2H lasterketako helmugan.

## MENDI LASTERKETAK • J.D.

Joan zen asteburuan Ehunmilak eta Goierriko 2 Haundiak (G2H) lasterketa gogor eta ezagunak lehiatu zituzten Beasainen (Gipuzkoa). Azken proba horretan Durangaldeko korrikalariak nagusitu ziren nesketan. Oihana Azkorbebeitia abadiñarra izan zen irabazlea (12.40.43) eta Larraitz Aragon durangarra bigarren sailkatu zen (13.18.06). G2H lasterketan (88 km) Euskadiko ultratrailen txapelketa zegoen jokoan, eta baita Euskal Herriko ultratrailen zirkuituko

Kopa ere, eta hor ere Azkorbebeitia nagusitu zen, zirkuituko hiru proba irabazita. Domusa Teknik (65 km) eta EH Mendi Erronka (67 km) irabazi zituen aurretik.

Abadiñarra pozik agertu zen garaipenagaz: "Lehenengoz parte hartu dut proba honetan eta asko gustatu zait. Gainera, ultratrailen txapelketa eta Kopako zirkuitua irabazi ditut eta ezin dut gehiago eskatu!". Txapela aita zenari dedikatu zion. "Aita une askotan izan dut gogoan, gaur auzo omenaldia egin diotelako Mendiolan, eta gaur-

ko txapela berari eskaintzen diot", esan zuen. Larraitz Aragonek ere pozarren amaitu zuen proba, besoak goratuta. "Lehenengo partean asko gozatu dut. Gero komeriak izan ditut, Andraitzen behera batez ere, baina, tira, ondo heldu naiz helmugara. Gaurko esfortzuak merezi izan du", azaldu zuen durangarrak.

Bestalde, Ander Garitagoitia mallabitarra 15. sailkatu zen (12.09.55) eta aipatzekoa da Beñat Gorospe otxandiarra bigarren A beteroa izan dela Kopako zirkuituan.

# Etxeko pilotaria, promesak eta txapeldun handiak Zornotzako pilota jaialdian

Besteak beste, Aimar Morgaetxebarria, Mikel Urrutikoetxea eta Martxel Iztueta pilotariek jokatu dute domekan



Jaialdiko sustatzaileak eta pilotariak, aurkezpen ekitaldian.

## PILOTA • J.D.

Baiko enpresak eta Zornotzako Udalak pilota jaialdi profesionala antolatu dute domeka honetarako. 18:00etan izango da, Amorebieta IV pilotalekuan. Jaialdiak zaleen pilota gosea asetzeko adina osagai ditu. Batetik, etxeko pilotari Aimar Morgaetxebarriak jokatu du atariko partiduan. 20 urteko zornotzarrak esperientzia handiko pilotaria izango du aurrean: Asier Agirre iruindarra. Aurkariak, Morgaetxebarria lez, profesioaletan oraintsu debuta egindako promesa bi dira: Unai Alberdi eta Martxel Iztueta. Partidu nagusian, hiru modalitateetako txapel nagusiak dituen Mikel

Urrutikoetxeak eta Jon Mariezkurrenak buruz buruzko txapeldu-na izandako Erik Jakaren eta Jon Ander Albisuren kontra jokatu dute.

**Sarrerak 25 euro balio du kantxan eta 20 harmailetan. Urtzan eta Venecian eskuratu daitezke**

Sarreraren prezioa honako hau da: 25 euro kantxan, eta 20 euro harmailetan. Zornotzako Urtza tabernan eta Venecia kafetegian eskuratu daitezke.

## Jokaldia

### Agur bat

Ez dakit nola hasi hau idazten. Hasiera orok du bukaera bat eta honi ere iritsi zaio berea. Hau da nire azken zutabea. Akordatzeko naiz duela hainbat urte Anboton idazteko eskaini zidaten egunaz. Niretzako beti izan da ohore bat nire eskualdeko irakurleei idaztea. Txikitatik erreferente izan dut komunikabide hau, eta honen parte izatea berezia izan da.

Denetik idazten saiatu naiz beti, nire kirola apur bat erakusten, nire bidea partekatzen. Eta batez ere, nire bizitza den kirol honen inguruan ditudan duda, zalantza, egonezin, iritzi edo injustiziak transmititzen. Batzuetan izan dira interesgarriagoak, batzuetan idatzi dut nahi gabe eta karaktereak moztu behar izan di-



June Arbo Sarriugarte  
Korrikalaria

**Gaur, hemen, agur diodan honetan akordatzeko naiz kirolari bezala zenbatetan despeditu behar izan nintzen**

**Eskerrik asko kaletik "Anboton ikusi zaitut, jarraitu horrela" esan didazuenoi. Eskerrik asko zuri, irakurle**

tut, beste batzuetan, ordea, pentsatu behar izan dut asteazken gauean nola bete karaktereak hitzak kontrako ez-tarrantik joaten zitzaizkidalako.

Gaur, hemen, agur diodan honetan akordatzeko naiz kirolari bezala zenbatetan despeditu behar izan naizen, eta beti korapilo bezalako bat sortzen zait eztarrian. Esan diet agur pare bat kluberi, agur txikitatik zaindu nauen entrenatzaileari, eta agur egunero nire herriko pistan entrenatzeari. Baina, orain konturatzen naiz hauek nire barruan bizitzen jarraitzen dutela betirako. Horregatik hau ez da agur bat, beste bide bat jarraitzeko modu bat baizik.

Eskerrik asko Anbotoko langile guztiei. Eskerrik asko kaletik "Anboton ikusi zaitut, jarraitu horrela" esan didazuen guztiei, kirol honetan bakarrik ez sentitzeko modu bat zarete. Eskerrik asko zuri, irakurle, eta noizbait nire zutaberen bat irakurtzen denbora pasatu duzun guztiei.

Argazkiak: UNAI OLASO



# Jairik jai!

## Zaldibarko jaiak



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**> anboto**

## Botikak

**BARIKUA, 14** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 15** · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 16** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 17** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 18** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 19** 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 20** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak  
guztio!

**GOZATU GOZOTEGIA**



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.


Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Zorionak, **Oihane**, osaba Yosu eta izeko Carmenen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak amatxo! Banatzen dozun maitasun goxo horrek etenik izan ez dezan! Maite zaitugu! Mosu handi bat etxeko danon partez.



**Beñatek** 7 urte bete zituen atzo. Zorionak eta musu bat etxeko guztien partez. Baita Haizea, Aratz eta Ametsen partez ere.

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 15° / 23° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 25° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 24° ☁

DOMEKA ↓ 14° / 22° ☁

MARTITZENA ↓ 16° / 26° ☁

EGUENA ↓ 16° / 23° ☁

# Ostalaritza gida

**Durango**



**AI AMA**

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO  
Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



**ABARKETERUENA**

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Iurreta**



**GAUARGI**

Dantzari 4 behea, IURRETA  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**Zornotza**



**XIBERU**

Zezipia Gallartzagotia, 9  
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



# "Aurtengo txistu kontzertura Eñaut Elorrieta etorriko da abestera"

Iban Ibarretxe ohorezko danbor-jotzaile izendatuko dute Zornotzako jaietan



**Iban Ibarretxe Mezo**

Txistularia

ZORNOTZA | 1973

## ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Egun hauetan agenda ekitaldiz gainezka dauka Iban Ibarretxe Udazken taldeko txistulariak. Herriko jaiak, Santurtzikoak, Bermeokoak... Eta aurten ospakizun horiei guztiei beste bat gehitu behar die: ohorezko danbor-jotzaile izendatuko dute Zornotzan.

### Ohorezko danbor-jotzaile izendatuko zaituzte jaietan. Pozik?

Danborrada zuzentzeari utzi nioanean, 2016an udaleko urrezko domina eman zidaten. Erreko nozimendua aldi hartan hartu nuen, eta pentsatu nuen horregaz nahikoa zela. Baina oraingoan

beste izendapen hau jasoko dut, eta pozik nago. Orain dela urte asko, zuzendari nintzela, Raimundo Zugadiri eman genion ikur hori. Nik dakidala, orain arte behin baino ez da eman.

### Hamasei urte egin zenituen danborrada zuzentzen. Zelako esperientzia izan zen?

Nire aurretik, Jose Mari González 'Semita' aritu zen zuzendari. Bere anaia ere ibili zen, eta orain bere semea dabil. Danborradan egin nuen ibilbidea polita izan zen, baina ardura handia da. Utzitakoan lasaitasuna hartu nuen. Danborrada nagusiagaz hasi nintzen. Gero, danborrada txikiko zuzendariak

utzi egin zuen eta hura ere hartu nuen. Baina sei entsegu izaten ziren, jende asko...

### Jende askok parte hartzen du?

Bai, 60 bat danborrari izaten dira. Beteranoak ere etorri ziren euren kabuz entseguetara.

### Udazken txistulari taldekoa zara. Jaietan tokatuko zaizu txistua jotzea?

Txistua barik gaita jotzea tokatzen zait Udazken Berrira taldean erraldioen kalejiran. Inoiz erraldoiak maneiatzen ere aritu izan naiz, baina orain gazteak ibiltzen dira.

### Dianan parte hartuko duzu?

Ez. Kontua da Santurtziko bandan txistulari lez nabilela eta uztaila-

ren 16ko eguna han egoten naizela. Madalenetan ere Bermeora joatea tokatzen zait teila jaurtitzera, hango txistulari maisua naizelako. Beraz, aurrera eta atzera ibiltzen naiz.

### Zertan parte hartuko duzu jaietan?

Txistularien kontzertuko eguna gustatzen zait, batez ere lanak behin eginda daudenean. Aurten, uztailaren 21ean egingo dugu kontzertua, eta gero parranda egingo dugu. Marmitakoa ere gustatzen zait, baina aurten ezingo naiz joan.

### Udazken txistu taldea zelan hasi zen diana jotzen?

Anaia, Eñaut Elorrieta eta hirurok 1998an hasi ginen diana jotzen, 09:00etan. Aurtengo txistu kontzertura Eñaut Elorrieta etorriko da abestera.

**“Danborradan egin nuen ibilbidea polita izan zen, baina ardura handia da. Utzitakoan lasaitasuna hartu nuen”**

### Orain gehiago zarete, eta diana geroago egiten duzue.

Udalak diana berreskuratzeko eskatu zigun. Orain 30 bat txistulari batzen gara eta gaur egun kalejira bat da. Gazte hauei ordua 09:00etan ipintzen badiezu...

### Zelan ikusten duzu txistuaren munda?

Lehen, urtean zortzi bat apuntatzen ziren musika eskolan txistua ikasteko; orain gutxiago.

### Dantza taldeek ere arazoak izaten dituzte txistulariak aurkitzeko.

Horregaitik, musika eskolako programan beti ipintzen ditut dantzak eta kalejirak. Eskarmen-tua behar da plazara jotzera irteko. Lehen denak ziren kaleko txistulariak, baina orain ez. Txistulariak kalea ere behar du. Ezin dugu txistuaren esentzia galdu.

### Jaietara begira, zein mezu helaraziko zenieke zornotzarrei?

Errespetuz jokatzera eta ondo pasatzea desio diet. Eta euskaraz egitea gogoratzea gura nuke. Mugimendu Feministak jaurtiko du txupinazoa, eta poztekoa da.

## Politikan

Mertxe Mujika  
Balanzategi  
AEK



### Giharra

Ukaezina da Tourrak izan duen arrakasta. Lasterketa ardura-dunari egindako elkarrizketa batean hurrengo lerroburu honekin geratu nintzen: "Tourra identitate bat erakusteko aukera da, herrialdearen onena mundu osoari erakusteko garaia da". Eta hala izan da; jendetza batu da bide bazterretan, ikurrinak lau haizeetara, euskara erabili da lasterketa hasieretan eta bukaeretan. Horrek guztiak berriro baieztatu du herri honetan badagoela nahi bat: nor garen erakustea, identitate nazional bereizi bat dugula, eta aukera dugun guztietan munduari erakusten diogula zer gura dugun.

Idea horri bueltaka nabilela, Espainiako Auzitegi Konstituzionaletik etorritako azken epaiaren berri izan dut. Oraingoan ezeztatu egin du EAEko udalen legeak euskara hutsean jardun ahal izateko ematen duen eskumena. Zer eta "oreka linguistikoa" urratzen duela! Epai hau dator euskararen erabileraren eta normalizazioaren kontra ebatzi diren beste askoren segidan. Ezbairik gabe, oldarraldi judizial baten aurrean gaude, non euskaldunen hizkuntza eskubideak jomugan dauden. Gainera, okerrera egiteko arrisku handia dago. Ikustea besterik ez dago maiatzaren 28ko hauteskundearen ostean Espainiako eskuinak hartu dituen lehen neurrietako batzuk gaztelaniaren aldeko eta estatuko hizkuntza gutxituen aurkakoak izan direla.

Ez datoz garai onak berdintasunaren alde sinisten dugunontzat, baina gure esku dago giharra erakutsi, eta datozen urraketek STOP esateko. Tourrean egin dugun moduan egingo al dugu, orain, gure hizkuntzaren defentsan?

## ESKELAK

946 816 558 · [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.

